

EMAKUMEEN

ETA

GIZONEN

BERDINTASUNERAKO

PLANA

**Lurralde Plangintza, Etxebizitza
eta Garraio Saila**

2022-2024



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

LURRALDE PLANGINTZA,
ETXEBIZITZA
ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN
TERRITORIAL, VIVIENDA
Y TRANSPORTES



AURKIBIDEA

Aurkezpena	2
Sarrera	3
1. Gobernu Programa	8
2. Emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII. plana	14
3. Sailaren plangintza estrategikoa.	22
3.1. Diagnostikoaren datu garrantzitsuak	22
3.1.1. Gobernu ona	22
3.1.2. Esku hartzeko ardatzak	28
3.2. Helburu estrategikoak	38
4. Plana kudeatzeko sistema	42
4.1. Berdintasunerako urteko plangintza	42
4.2. Berdintasunerako egiturak	43
4.3. Jarraipen sistema	44
4.4. Komunikazio-sistema	45
4.5. Aurrekontu-sistema	47

AURKEZPENA



Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak Berdintasunerako Plan bat landu du. Plan horrek 2022-2024 urteetarako emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako bere konpromisoak eta lehentasunak jasotzen ditu. Plangintza hori funtsezko tresna da berdintasun-arloan esku-hartze publiko koordinatua, koherentea, efizientea eta eraginkorra ahalbidetzeko. Gainera, plangintza horren bitartez argi eta garbi islatzen da Sail honek emakumeen eta gizonen berdintasun-esparruan duen benetako konpromisoa, eta horretarako aurrekontu-, giza eta teknika-baliabideak eskaini eta erakunde guztiekin modu

erantzunkidean eta koordinatuan lan egingo du..

Plan honetan bereganatutako konpromisoak Gobernu programarekin eta EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planarekin bat datoz. Azken finean, plangintza horrek bat etorri behar du Eusko Jaurlaritzaren gardentasun-politikarekin eta, horrenbestez, ezagutzera eman nahi zaie herritarrei zer konpromiso hartu dituen Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak bere eskumenen esparruan emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-politikak ezartzeko.

Jarraian, Sail honek emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren esparruan dituen konpromisoak aurkezten dizkizuegu, baita bidezkoagoa eta berdintasunezkoa izango den gizarte bat lortzeko gure konpromisoa ere.



Pedro Javier Jauregui Fernández
Etxebizitzako sailburuordea



SARRERA

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Plana esparru-dokumentua da, eta XII. legegintzaldian sailak berdintasunaren alorrean sustatuko dituen politiken gidalerroak biltzen ditu.

Agiri edo dokumentu honekin, sailak erantzuna ematen dio *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen* aginduari, honako hau xedatu baitu aipatutako 15. artikuluan:

- ⇒ 1. *Eusko Jaurlaritzak plan orokor bat onartuko du, eta, plan horretan, esku-hartze ildoak eta gidalerroak jasoko dira, koordinatuta eta oro har, euskal botere publikoek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan izango dituzten jarduerak gidatzeko. Plan hori egiteko orduan, Eusko Jaurlaritzak parte hartzeko aukera eman behar die gainerako euskal administrazio publikoei, talde feministei eta emakume taldeei, beste gizarte-eragile batzuei eta, oro har, herritar guztiei. Halaber, erraztu behar du 3.1 artikulua azken tarteetan aipatutako emakumeen interesak ordezkatzeko dituzten kolektiboak edo antolakundeak egotea.*
- ⇒ 2. *Lehenengo paragrafoan aurreikusitako plan orokorraren esku-hartze ildo eta gidalerro horiek garatzerakoan, **Eusko Jaurlaritzaren sail bakoitzak bere jarduketa-plan propioa egingo du legegintzaldi bakoitzean; plan horiek behar diren baliabide pertsonal, ekonomiko eta materialez hornituta egongo dira, benetan ezarriko direla bermatzeko.** Sail bakoitzak zehaztuko du, nork bere ezaugarrien arabera eta efikazia-irizpideak kontuan hartuta, nola koordinatu bere organismo autonomoekin eta atxikitako edo lotutako erakunde publikoekin, plan horiek egiteko.*

Plan orokor hori Jaurlaritzaren Batzordeak 2018ko ekainaren 19an onartu zuen VII. Plana da, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legearen 15.1 artikulua betez.

AURREKARIAK

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Planak legegintzaldiko 4 plan izan zituen aurretik, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alorrekoak, kasuan kasuko urteko garapenak barne. Edonola ere, esan behar da sail horren eskumen-eremuek aldaketak jasan dituztela aipatutako legegintzaldi guztietan; etxebizitzaren esparrua ez dago aipatutako lehen plangintzen artean, beste sail batzuen egiturari txertatuta zegoelako, eta garraioaren alorra azken plangintza honi eransten zaiola, eta, beraz, haren plangintza berdintasunerako beste legegintzaldi-plan batzuetan islatuta zegoelako.

SAILAREN BERTINTASUN-PLANAK	INDARRALDIA
⇒ Ingurumen eta Lurralde Plangintza Sailaren Berdintasun Politikako 2007-2009 Dokumentu Pragmatikoa.	2007-2009
⇒ Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Dokumentua-Programa IX. Legegintzaldirako. Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila.	2010-2013
⇒ Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Dokumentu-Programa X. legegintzaldirako. Ingurumen eta Lurralde Politika Saila.	2014-2017
⇒ Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila.	2018-2021

Plan honek modu sinplean, argian eta zehatzean islatu nahi ditu XII. Legegintzaldirako konpromiso estrategikoak, emakumeen eta gizonen berdintasunerako arloan.



DOKUMENTUAREN EGITURA

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana euskal herri-aginteen jarduera zuzentzeko dokumentua da, legegintzaldi honetan emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan aurrera egiteko. Alde horretatik, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari dagokio esku hartzeko estrategiak definitzea, berdintasun-politikak gauzatzeko bere eskumen-esparruan, dela zuzendaritzetan, dela sozietate publikoetan edota atxikitako erakundeetan. Nolanahi ere, zehaztu behar da sailari atxikitako sozietate publikoek eta erakundeek (Visesa, Alokabide, Euskotren eta Euskal Trenbide Sarea-ETS) plangintza propioa dutela, baina sailarekin koordinatuta daudela berdintasunerako Saileko Talde Teknikoaren bidez.

Honako hauek dira Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planaren edukiak:

- ⇒ Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari dagozkion Eusko Jaurlaritzaren XII. Legegintzaldirako Gobernu Programaren konpromisoak.
- ⇒ Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio SAILA eskudun den Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planeko programak eta helburuak.
- ⇒ Sailaren plangintza estrategikoa:
 - Diagnostikoaren datu garrantzitsuak.
 - XII. Legegintzaldirako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren helburu estrategikoak.
- ⇒ Plana kudeatzeko sistema:
 - Urteko plangintza.
 - Berdintasunerako egiturak.
 - Jarraipen-sistema.
 - Komunikazio-sistema.
 - Aurrekontu-sistema.

PRESTAKETA-PROZESUA

Nabarmentzekoa da plangintza hori egiteko, hasiera batean, diagnostikoa berrikusi eta eguneratu dela, genero-eten nagusien ezagutza sakontzeko.

Halaber, jarduteko estrategiak diseinatzekoan berdintasun-politikak ezartzeko aurreko ibilbidea bera hartzen da abiapuntutzat. Hortik abiatuta, sail honek berdintasunaren arloan hartutako konpromisoak eguneratzeko proposamen bat egin da, parte-hartze teknikoarekin zein politikoarekin. Horri dagokionez, kontraste teknikoko bilerak egin dira saileko zuzendaritza guztiekin, hartutako konpromisoak berrikusteko eta sailaren egungo egoerarekin bat datozen konpromisoak berritzeko edo konpromiso berriak hartzeko.

Proposamen hori sailean kontrastatu eta baliozkotu da, eta 2022-2024 urteetarako emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko konpromisoak barne hartzen ditu.

ESKUMENEN EGITURA

Jarraian, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren eskumen-eremuak azaldu dira eskema moduan, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko jarduerak non txertatzen diren zehaztuta.





1 GOBERNU PROGRAMA

Eusko Jaurlaritzaren XII. Legegintzaldirako Gobernu Programak 3 printzipio, 4 zutabe, 10 herri-helburu, 25 jarduketar, 150 konpromiso eta 699 ekimen biltzen ditu. Helburu estrategiko horien artean dago Euskadi genero-berdintasunaren indizerik altuena duten Europako 6 herrialdeen artean kokatzea. Genero-berdintasunaren indizeak 100 puntutik 71,1 jo zuen 2017an EAEn, eta zifra hori Europako batez bestetik gorakoa da. Horrenbestez, berretsi egiten da puntuazioa arian-arian hobetuz doala: 2010 (68,8 puntu), 2012 (69,1 puntu) eta 2015 (69,3 puntu).

Jarraian, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailari dagozkion konpromisoak eta ekimenak xehatuko ditugu. Gobernu Programan zehaztuta daude.

LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILAREN XII. LEGEGINTZALDIRAKO KONPROMISOAK ETA EKIMENAK

32

Mugikortasun jasangarria

1. ekimena Mugikortasun Jasangarriaren Legea onartzea, lurralde-mugikortasuneko agintaritzen eginkizunak finkatu eta garatuko dituen, Euskadiko Garraio Agintaritzarekin koordinatuta, klima-aldaketaen aurkako borrokan eta haren gizarte- eta ingurumen-ondorio kaltegarriari aurre egiten lagunduko duen garraio-sistema integratua lortzeko.

2. ekimena. 2021-2025 aldirako Mugikortasun Jasangarriaren Plana onartzea, Euskadiko Garraio Jasangarriaren 2030 Gida Planaren barruan. Plan horrek indartu egingo du mugikortasun jasangarriko eredu berri baten eta berotegi-efektuko gasen emisio txikiko garraio baten aldeko apustua, ibilgailu elektrikoa sustatuz, Ibilgailu elektrikoentzako karga-guneak eta pizgarri fiskalak abian jarri.

3. ekimena. Garraio publiko kolektibo integratua eta haren intermodalitatea bultzatzea tarifa-integrazio eta txartel bakarraren bidez, tokiko Hiri Mugikortasun Jasangarriko Planen garapena sustatuz eta garraio publikoaren erabilera intentsiboari hobariak emanez.

4. ekimena. Floten berrikuntza sustatzea eta kargatze elektrikoari hobaria ematea, ibilgailu arin elektrikoetan (bizikleta barne) hiri-mugikortasuna sustatzeaz gain.

5. ekimena. Kargatze elektrikoko azpiegiturak sustatzea eta potentzia handiko kargatze-sarea hirukoiztea, Euskadin kargatze azkarreko 100 gunera iritsi arte, bai "kargatze azkarreko azpiegituren korridore iberikoan", bai Europako sarean integratuta.

6. ekimena. Garraio publikoaren elektrifikazioa bultzatzea, floten berrikuntza bizkortuz, foru-aldundiekin eta udal-erakundeekin lankidetzan.

7. ekimena. Ahalmen handiko autobus elektriko adimendunaren proiektuak biztanleria-dentsitate handiko hiriguneetara eta metropolialdeetara hedatzea.

8. ekimena. Gizartea sentsibilizatzeko jarduerak garatzea eta mugikortasun jasangarriaren aldeko itun sozial bat proposatzea



33

Euskadi: Europako korridore atlantikoaren funtsezko “kate-maila”.

1. **ekimena.** Euskadin salgaien korridore atlantikoaren (European transport networks, TEN-t) garapena bultzatzea. Helburu horrekin, Bilboko hegoaldeko trenbide-saihesbidearen eraikuntza eta Bilboko portuarekiko trenbide-konexioa dinamizatuko dira.
2. **Ekimena** Lille-Gasteiz trenbide-autobidearen garapena sustatzea, eta, horretarako, Jundizko plataforma multimodala amaitu behar da.
3. **ekimena.** Lezoko plataforma logistikoa eta trenbide-sarearekiko lotura garatzea, Pasaiaiko portuaren operatibitatea hobetzeko.
4. **ekimena** Industria-zerbitzua emateko bokazioa duten azpiegitura logistikoak indartzea, azpiegitura horiek berritzeko eta modernizatzeko plan baten bidez, trenbide- eta portu-konexioen hobekuntza barne hartuta.
5. **ekimena.** Forondako aireportuko VIAP plataforma garatzea eta digitalizazioa sustatzea azpiegitura logistikoen kudeaketan.
6. **ekimena.** Irungo bideko proiektua bultzatzea, hirigintza-garapenerako eta eremu desafektaturako.

34

Trenbideko inbertsioak lehenestea.

1. **ekimena.** Euskal Y-a amaitzea, Irun, Donostia, Ezkio, Bilbo eta Gasteizko geltokiak eraikita.
2. **ekimena** Donostiako lurpeko trenbide-saihesbidearen obra amaitzea.
3. **ekimena.** Loiolako Erriberako aldagunea eraikitzea.
4. **ekimena** Topoaren trenbide-azpiegituren hobekuntzak osatzea Pasaian eta Irunen.
5. **ekimena.** Eibar eta Donostia arteko trenbide-azpiegituren hobekuntzak osatzea.
6. **ekimena.** Aginagako trenbide-trazadura hobetzeko obrak egitea, Eibar eta Donostialdearen arteko zerbitzuak hobetzeko.
7. **ekimena.** Trenbide-bilbea hiriguneetan ahalik eta ondoen egoteko eta integratzeko ekintzetan aurrera egitea, horretarako hitzarmenak sinatuko dira udalekin.
8. **ekimena.** Salburua eta Zabalganarako tranbiaren luzapenak garatzea Gasteizen.
9. **ekimena.** Bilbon tranbia Boluetara zabaltzea, Abusurako sarbideekin.
10. **ekimena** Bilboko metropoli-trenbidearen 4. eta 5. lineen garapenari ekitea, behin Euskal Trenbide Sarea (ETS) Bilboko metropoli-trenbidearen inguruan egiten ari den honako informazio-azterlanen ondorioak jaso ondoren: 4. linea, Hegoaldearena, 5. linea eta horrek trenbidean duen integrazioa.
11. **ekimena** Bilbo-Loiuko aireporturako trenbide-konexioan aurrera egitea.



35

Euskadiri egin beharreko garraio-azpiegituren transferentziak osatzea.

1. ekimena Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailarekin batera, erabakia hartzea trenbideei eta aireportuei buruzko gaiak eta zerbitzuak transferitzeko, Gernikako Estatutua eta haren garapena osorik betetze aldera, eta Euskal Autonomia Erkidegori egin beharreko transferentziak eguneratzeari buruzko 2017ko txostenean jasotako baldintzen arabera (txosten hori Gobernu Kontseiluak abalatu zuen 2017ko irailean, eta Eusko Legebiltzarreko Autogobernuaren Ponentziara bidali zen), eta Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuak eskatutako eskualdatzeen inguruan egin litezkeen negoziazioen kronograma orientagarriarekin bat etorrira (Espainiako Gobernuak formalki bidali zuen 2020ko otsailaren 20an).

36

Euskadi Bultzatu 2050 Hiri-agenda hedatzea eta ezartzea

1. ekimena Bultzatu 2050 Euskadiko Hiri Agenda hedatzea eta ezartzea, maila anitzeko gobernantza-sistema bat garatuz Bultzatu 2050 Foroa abian jartzearen inguruan.

2. ekimena Genero-ikuspegia integratzea hiri-garapenaren eremuan.

3. ekimena. Hiri-izaera edo -dimentsioa duten politika publikoen osagarritasuna eta integritasuna aztertzea eta sustatzea.

4. ekimena. Ebaluazio- eta jarraipen-sistema bat ezartzea, aldian behin Euskadiko egoerari buruzko txostenak egiteko eta aurreikusitako helburuak betetzen egindako aurrerapena ebaluatzeko.

5. ekimena I+G+b prozesuak bultzatzea hiri jasangarrien eremuan.

6. ekimena. Jardun-eremu hori arautzen duen ordenamendu juridikoa eguneratzea, jasangarritasun-paradigma berrietara egokitzeko.



37

15 urterako etxebizitzaren aldeko gizarte-ituna lortzea eta legegintzaldiko Etxebizitza-plan Zuzentzaile berria onestea

1. ekimena 2021-2023 Etxebizitza-plan Zuzentzaile Berria onartzea

2. ekimena. Etxebizitza publikoaren sustapenaren % 100 alokairura bideratzea.

3. ekimena. Etxebizitzarako eskubide subjektiboa erregelamendu bidez garatzea, DSBE osatzen duen egungo etxebizitzarako prestazio osagarritik Etxebizitzari buruzko Legean aurreikusitako etxebizitzako prestazio ekonomikora kudeaketa eta trantsizio ordenatua egiten dela bermatuz. Horretarako, edonola ere, egokiak diren akordio eta zuzkidurak gaituko dira.

4. ekimena. Arau-esparrua garatzea bizigarritasun-dekretuari dagokionez. Bertan, zenbait oinarritzko irizpide finkatuko dira: telelaneko espazioak, osasun-ikuspegia (aireztapena), balkoiak, familia eta lana bateragarriak egitea (haurrak eta adinekoak) eta aldi baterako etxebizitzaren arau- eta kontzeptu-berrikuspina (Ada).

5. ekimena Etxebizitza publiko berrien eta zuzkidura-bizitokien sustapena bultzatzea.

6. ekimena. Bizilagunik gabeko etxebizitzaren arau-esparrua garatzea. Merkatuan hutsik dauden etxebizitzaren erakarpina sustatzea alokairu sozialera bideratzeko, Bizigune programa eta arrazoizko prezioa alokairu seguruko ASAP programa indartuz.

7. ekimena. Hutsik dauden lokalak eta lonjak etxebizitza bihurtzeko planak eta programak garatzea, udalekin lankidetzan estuan.

8. ekimena. Etxebizitza ordaintzeko laguntzen sistema indartzea eta alokairu sozialeko parkea handitzea. Alokairu babestua sustatzeko ekintzak garatzea, horiek indartuz eta horretarako etxebizitza pribatuak mobilizatu daitezela sustatuz.

9. ekimena. Foru-aldundiekin eta udalekin lankidetzan, hutsik dagoen parkea murrizteko eta hura alokairuan jartzea sustatzeko zerga-neurriak artikulatzea.

10. ekimena. Hobetzea etxebizitzak esleitzeko prozedurak eta horietarako sarbide-eskakizunak, gizarte-profil desberdineko kolektiboen etxebizitzarako sarbidea errazte aldera, bereziki, hauena: gazteak, adinekoak, seme-alabak dituzten guraso bakarreko familiak eta genero-indarkeriaren biktimak, edonola ere, ghettoak sortzea saihestuz.

11. ekimena Etxebizitza-parke publikoaren kudeaketa aurreratua eta integrala bultzatzea, efizientzia energetikoko eta digitalizazioko irizpideekin, pobrezia energetikoari aurre egiteko estrategia barne, hori guztia etxebizitza-parke publikorako energia-kudeatzaile propioa sortuz.

12. ekimena Pertsona kalteberei laguntzea etxegabetze-prozeduretan.

13. ekimena Etxebizitza babestuen parkearen kudeaketan efizientzia hobetzea, Alokabideren esku-hartze komunitarioko programa hedatuz eta hirugarren sektore sozialarekiko lankidetzan indartuz.

14. ekimena. Etxebizitza eskuratzeko alternatiba berritzaileak abian jartzea, eta, horretarako, honako hauek garatzea: *cohousing*-a, erabilera-lagapeneko kooperatibak, eta erosketaren eta alokairuaren arteko tarteko figurak. Halaber, ekimen pribatuarekiko eta udalekiko lankidetzan sustatzea, eraikin eta auzo berberetan belaunaldien arteko bizikidetzak-formulak sustatzeko.

38

Gazteek etxebizitza eskuratzeko ekintza espezifikoak.

1. **ekimena.** Gazteentzako etxebizitza-programa berezi bat garatzea, familia-etxebizitzatik emantzipatu ahal izateko eta bizi-proiektu independenteen garapen osoa errazteko.
2. **ekimena** Alokairu-erregimeneko etxebizitza babestuen lehentasunezko erreserba ezartzea gazteentzat.
3. **ekimena** Gaztelagun programa sustatzea, programan sartzeko baldintzak malgutuz.
4. **ekimena** Gazteek etxebizitza bat eskuratzeko aukera berritzaileak abian jartzea, hala nola, "cohousing" delakoa, erosteko aukera ematen duten alokairuak eta etxebizitza partekatuen programak.
5. **ekimena.** Zuzkidura-bizitokiak gazteei orientatzea eta gazteentzako etxebizitzak errazteko proiektu pilotuei ekitea, hala nola erabilera-lagapeneko kooperatibei, Europako iparraldeko herrialdeetako esperientziei jarraiki.

39

Birgaitzea, hiri-berroneratzea eta etxebizitza-berrikuntza sustatzea, irisgarritasuna, energia-efizientzia eta eraikuntza jasangarria hobetuz.

1. **ekimena** Eraikinak osorik birgaitzeko estrategia baten barruan, etxebizitzak eta eraikinak birgaitzeko Renove Plan berri bat onartuta, birgaitzeko laguntza-programak hobetzea eta zabaltzea, lehentasuna emanez irisgarritasunari –igogailuak eta arkitektura-oztopoak kentzea–, energia-eraginkortasunari eta kanpoko bizigarritasunari.
2. **ekimena** Eraikinen Ikuskapen Teknikoak (EIT) egiteari bultzada berriz ematea.
3. **ekimena** Hutsik dauden etxebizitzak birgaitzeko programak bultzatzea, gazteentzat, 55 urtetik gorakoentzat eta iraupen luzeko langabeentzat enplegua sortzean arreta berezia jarrita.
4. **ekimena** Hiri-kalteberatasunaren inbentarioa eguneratzea.
5. **ekimena** Etxebizitzari buruzko 3/2015 Legearen VII. kapitulua garatuko duen dekretu bat onartzea, besteak beste, birgaitzearen kudeaketa integratua errazteko, eremu degradatuen eta lehentasunezko esku-hartzearen deklarazioa sinplifikatuz.
6. **ekimena.** Arkitekturako berrikuntza eta ikerketa-proiektuak sustatzea eraikuntza jasangarriaren, ekoberrikuntzaren eta energia-efizientziaren arloan, RIS3 Euskadi espezializazio adimenduneko estrategiarekin bat etorritik, bereziki Euskadiko Hiri Agenda – Bultzatu 2050 eta hiri-berroneratze integraleko proiektuen ezarpenaren esparruan.
7. **ekimena** Prestakuntzan laguntzeko planak abian jartzea, Lanbide Heziketa dualaren bidez, etxebizitza hutsak birgaitzera eta gazteen enplegua sortzera bideratuta.
8. **ekimena.** Euskadiko Luze Begirako Hiri Berroneratzeko Estrategia egitea, arreta berezia jarrita energia-efizientziarekin, osasuna bermatzeko baldintzekin, erosotasunarekin edo pobrezia energetikoaren arriskua ezabatzearekin lotutako alderdietan.
9. **ekimena.** Etxebizitza berriak eraikitzearen aldeko apustu irmoa egitea, ia energiarik kontsumitzen ez duten eraikinak eraikitzeari buruzko 2010/31-Ec Europako Zuzentarauaren parametroei jarraikiz ("NZEB-Nearly Zero Energy building")
10. **ekimena.** Erakunde kudeatzaile baten sorrera bultzatzea eta horretan parte hartzea (HIROSS4all Europako proiektua garatzeko). Erakunde horren egitekoa Hiria Birgaitzeko eta Berroneratzeko politika ezartzen eta garatzen laguntzea izango da, eta bere ekintza Euskadiko lurralde osora zabalduko da. Hiri-berroneratze integraleko jarduketak bultzatzea, ingurumen-, gizarte-, ekonomia-, hiri- eta gobernantza-alderdiak tratatuz, auzo kalteberetan luze begira esku hartzeko programa baten esparruan.

Bestetik, honako taula honetan berdintasuna sustatzeko XI. Legintzaldirako Gobernu Programan jasotako beste hainbat konpromiso eta ekimen jasotzen dira, eta, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren eskumen zuzenak ez badira ere, gure planarekin betetzen lagunduko dugu:

XII. LEGEGINTZALDIKO GOBERNU-PROGRAMAN BERDINTASUNA SUSTATZEKO JASOTAKO KONPROMISOAK ETA EKIMENAK

93	Indarkeria matxista desagerraraztea eta emakumezkoen indarkeriarik gabeko gizarte berdinazale bat eraikitzea
▶ 3. ekimena: Erakundearteko akordioa eguneratzea, indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako arreta hobetzeko eta lehentasunezko, doako eta kalitatezko arreta integrala bermatzeko biktimei eta horien seme-alabei. ▶ 4. ekimena: Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeak identifikatzea sustatzea, gero emakume horiekin esku hartzeko tresna berriak txertatuz.	
94	Soldata-arrailearen aurkako txoke-planaren aplikazioa sustatzea
▶ 6. ekimena: Emakumeen laneratzea erraztea etorkizunean eskari handiagoa izango duten lanbideetan. ▶ 7. ekimena: Zaintzak berdintasun-politiken erdigunean jartzea, gero eta erantzunkideagoa den gizarte-antolakuntza batean aurrera egiteko eta “kontziliaziotik erantzunkidetasunerako” trantsizioa egiteko.	
95	Balio-aldaketa eta emakume eta nesken ahalduntzea ahalbidetzea.
▶ 2. ekimena: Emakumeen elkarre-mugimenduaren eta mundu feministaren ekimenak sustatzea ahalduntze- proiektuetan eta balio-aldaketako proiektuetan. ▶ 3. ekimena: Aurrera egitea interseksionalitatean, emakume guztien premia desberdinei hobeto erantzuteko. ▶ 4. ekimena: Gizonduz Programa indartzea, gizonezkoen benetako inplikazioa lortzeko berdintasunaren aldeko borrokan. ▶ 5. ekimena: Emakumeen laneratzea sustatzea, horien autonomia ekonomikoa bermatze aldera, bereziki, gizonezkoek egin izan dituzten lanetan.	

Horrenbestez, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planak Gobernu Planarekin lerrokatuta egon behar du, eta sailaren konpromisoak eta ekimenak lortzen lagundu behar du, baita bertako berdintasuneko neurri espezifikoak betetzen ere.



2 EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO VII. PLANA

[Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planak \(PDF, 1 MB\)](#) modu koordinatuan eta orokorrean jasotzen ditu euskal agintari publikoek 2018-2021 aldian berdintasunaren alorreko jardunean esku hartzeko lerroak eta irizpideak; hori dela eta, XI. Legegintzaldirako Gobernu Programako konpromisoekin lerrokatuta dago. Plana Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak prestatu du, erakunde publiko eta gizarte-eragile guztiekin parte hartuta; era berean, plana prestatzeko oinarritzkoa izan da EAEko emakumeen eta feministen elkarteen eta berdintasun-teknikarien partaidetza.

Berdintasunerako VII. Planak Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako Legearen (otsailaren 18ko 4/2005) 15. artikulua ezarritako legezko aginduari erantzuten dio. Legeak ezartzen du, halaber, aipatutako esku-hartze ildoak eta gidalerroak garatuz, **legegintzaldi bakoitzean Eusko Jaurlaritzako sailek euren jarduketa-planak egingo dituztela**.

Alde horretatik, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren **xedea** botere publikoak gidatzea da, zertarako eta bizitzaren arlo guztietan emakumeen eta emetasunaren mendekotasuna mantentzen eta justifikatzen duten balioak aldatzeko; balio horiek gizonak ere mugatzen dituzte, nahiz eta oraindik botere-egoeran egon, patriarkatuak haien bizitzak ere baldintzatzen baititu, unibertsala da eta.

Balio-aldaketa hori nahitaezkoa da giza-garapen jasangarrirako, eta beste balio batzuk sortzea eta finkatzea eskatzen du, androzentrismoak, sexismoak eta matxismoak zeharkatu gabeak; orobat eskatzen ditu beste printzipio filosofiko, etiko eta politiko batzuk, emakumeen eta gizonen berdintasuna, emakumeen giza eskubideen errespetua eta herritarren sustapena garatzea eta txertatzea ahalbidetzen dutenak.

VII. planean ezarritako **printzipioek** adierazten dute zein diren plan horrek inspiratutako eta orientatutako helburuen eta jardueren ikuspegi estrategikoak; **bermeek**, berriz, haien operatibitatea eta inpaktua ziurtatzea bilatzen dute.



XEDEA OINARRIKO IRIZPIDEAK ETA BERMEAK

XEDEA

- Balioak aldatzea

OINARRIKO IRIZPIDEAK

- Paradigma feminista
- Genero-ikuspegia
- Interseksionalitatea
- Emakumeen ahalduntzea
- Giza garapen jasagarria

BERMEAK:

- Konpromiso politikoa
- Aurrekontu-baliabideak, giza baliabideak eta baliabide teknikoak
- Gardentasuna eta kontu ematea
- Emakumeen eta herritarren parte-hartzea eta solaskidetza
- Erakundeen erantzunkidetasuna eta lankidetzatza

Helburu hori lortzeko, batetik, **Gobernu Onerako** bost programa jasotzen ditu, Legeak ezarritako aginduak jasotzen eta zabaltzen dituztenak eta administrazio publiko osorako orokorrak direnak. Bestetik, **esku hartzeko ardatzak** definitzen ditu berdintasunaren alorrerako, gizarte bidezkoago eta berdinarago baterantz egiteko:

GOBERNU ONA

ESKU HARTZEKO ARDATZAK

GOBERNU ONA

Berdintasuna txertatzea EAEko agintari publikoen antolaketan eta funtzionamenduan eta konpromiso politikoa esplizitu egitea.

EMAKUMEAK AHALDUNTZEA

Emakumeen ahalduntzea babestea maila pertsonalean zein kolektiboan, sozialean eta politikoan.

EKONOMIAK ETA GIZARTE ANTOLAKUNTZA ERALDATZEA, ESKUBIDEAK BERMATZEA

Politika ekonomikoak eta sozialak konektatzea, ekonomia sendoagoak eta gizarte jasagarri eta berdinaragoak sortzen laguntzeko.

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIARIK GABEKO BIZITZAK

Indarkeria prebenitzea, bizirik dirauten biktimak artatzea eta haiek izandako kaltea konpontzea



Esku hartzeko ardatzetan proposatutako ekimenen artean, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planak Eusko Jaurlaritzako zer sailek gauzatu ditzaketen aipatzen du, euren eskumen-esparrua aintzat hartuta. Segidan, VII. Planaren arabera, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren eskumenekoak diren **programak eta helburuak** azaldu dira¹.

Gobernu Onerako programak eta neurriak		
I. PROGRAMA: KONPROMIS O POLITIKOA.	BG.1. Berdintasunaren gaiari buruzko berriazko araudia onartzea eta garatzea.	GO1.1 Berdintasunerako berriazko araudia duten erakunde publikoen kopurua handitzea.
	BG.2. Berdintasun-politikak garatzeko aurrekontua handitzea.	GO2.1 Berdintasunerako berriazko aurrekontuak dituzten erakunde publikoen kopurua handitzea. GO2.2 Berdintasunera bideratutako aurrekontua handitu duten erakunde publikoen kopurua handitzea.
	BG.3. Berdintasunerako plangintza eta horren ebaluazioa areagotzea eta hobetzea.	GO3.3 Partaidetza nagusia kapital publikoarena duten enpresak, berdintasunerako plan bat dutenak, gehitzea. GO3.4 Berdintasunerako plangintza-prozesuak hobetzea. GO3.5 Erakunde publikoek egindako berdintasun-planen ezarpen-, jarraipen- eta ebaluazio-prozesuak hobetzea. GO3.6 Berdintasunaren arloko kudeaketa publikoan kontuak ematea sustatzea, politiken ebaluazioaren emaitzetatik abiatuta.
	BG.4. Berdintasunerako organo eta unitate administratiboak sortzea eta indartzea.	GO4.1 Berdintasunean trebatutako teknikariak dituen unitate espezializatua duten sailen, erakunde autonomoen eta Eusko Jaurlaritzari atxikitako erakunde publikoen kopurua handitzea. GO4.4 Berdintasuneko teknikarien egoera eta maila profesionala hobetzea. GO4.5 Posizio organiko egokia eta behar den aurrekontu-zuzkidura duten berdintasunerako unitateen kopurua handitzea.
II. PROGRAMA: BERDINTASU NERAKO TREBAKUNT ZA.	GO.5 Erakunde publikoetako langile guztiak prestatzea, baita politikariak ere.	GO5.1 Beren prestakuntza-planetan berdintasunerako prestakuntza txertatzen duten erakunde publikoen kopurua handitzea. GO5.2 Jarduera politiko eta teknikorako egokitutako berdintasunerako prestakuntza-ibilbideak diseinatzeko dituzten erakunde publikoen kopurua handitzea. GO5.3 Berdintasunera berriaz bideratzen ez diren baina genero-ikuspegia txertatzen duten prestakuntza-jardueren ehunekoa handitzea.
III. PROGRAMA: GENERO- IKUSPEGIA LAN- PROZEDURE TAN.	GO.6 Estatistika eta azterlanetan genero-ikuspegia txertatzea.	GO6.1 Azterlan eta estatistiketan sexu aldagaia zeharka sartzen duten euskal erakunde publikoen kopurua handitzea. GO6.2 Azterlan eta estatistiketan sexu aldagaia zeharka sartzen duten euskal erakunde publikoen kopurua handitzea. GO6.3 Emakumearen egoerari buruz edo berdintasunaren arloan ikuspegi intersektionala duten berriazko azterlanen kopurua handitzea.
	GO.7 Enplegu publikora sartzeko eta bertan mailaz igotzeko hautaketa-prozesuetan berdintasunarekin lotutako edukiak txertatzea.	GO7.1 EAEko berdintasuneko teknikariak hautatzeko prozesuak, berdintasun-arloko berriazko prestakuntza eskatzen dutenak: ehunekoa handitzea. GO7.2 Emakumeen ordezkaritza txikia denean, berdinketa hausteko emakumeen aldeko klausula bat duten enplegu publikorako sarbide, hornitze eta promoziorako hautaketa-prozesuen ehunekoa handitzea. GO7.3 Gai-zerrendetan berdintasunari buruzko edukiak dituzten enplegu publikorako sarbide eta promoziorako hautaketa-prozesuen ehunekoa handitzea.
	GO.8 Komunikazioan berdintasuna txertatzea.	GO8.1 EAEko aldezkarri ofizialetan argitaratu eta hizkera ez-sexista erabiltzen duten dokumentuen ehunekoa handitzea. GO8.2 EAEko administrazio publikoen webguneetan, hizkuntzaren eta gainerako komunikazio-elementuen erabilera ez-sexista egiten duten edukien kopurua handitzea. GO8.3 Euskal erakunde publikoek erabiltzen eta berdintasunaren arloko lorpenak agerian jartzen dituzten komunikazio-euskarrien (memoriak, webguneak...) kopurua



		handitzea. GO8.4 Erakunde publikoek onartutako berdintasunaren arloko oinarritzko dokumentuak guztientzako eskuragarri jartzea.
	BG.9 Araudien berdintasunaren printzipioa txertatzea.	GO9.1 Generoaren arabera eraginaren ebaluazioak egiten dituzten foru- eta toki-administrazioen kopurua handitzea. GO9.2 Generoaren arabera eraginari buruzko alde aurreko ebaluazioa duten arauen ehunekoa handitzea. GO9.3 Berdintasuna sustatzeko neurriak dituzten arauen ehunekoa handitzea.
	GO. 10 Aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzea.	GO10.1 Aurrekontuak berdintasunean duen eraginaren aurretiko balorazioa egiten duten administrazio publikoen kopurua handitzea. GO10.2 Genero-ikuspegia aurrekontuetan txertatzeko jarduerak egiten ari diren administrazio publikoen kopurua handitzea.
	GO. 11 Genero-ikuspegia sartzea sektorekako eta zeharkako planetan.	GO11.1 Diseinu-, kudeaketa- eta ebaluazio-prozesuetan genero-ikuspegia kontuan hartzen duten plan sektorialen eta zeharkako planen ehunekoa handitzea. GO11.2 Prestaketan eta jarraipenean berdintasun-unitateak parte hartu duten plan sektorialen eta zeharkako planen kopurua handitzea.
	BG.12 Kontratu, dirulaguntza eta hitzarmenetan berdintasunerako klausulak sartzea.	GO12.1 Kontratu edo dirulaguntzetan berdintasunerako klausulak txertatzen dituzten eta haien betetze-mailaren jarraipena egiten duten erakunde publikoen kopurua handitzea. GO12.2 Berdintasun-klausulak txertatzen dituzten kontratuen ehunekoa handitzea. GO12.3 Berdintasun-klausulak txertatzen dituzten dirulaguntzen, hitzarmenen eta beken ehunekoa handitzea.
IV. PROGRAMA: KOORDINAZI OA ETA ELKARLANA.	GO.13 Berdintasunerako koordinazioa eta lankidetzak indartzea.	GO13.3 Berdintasunerako sailarteko koordinazio-egitura duten Eusko Jaurlaritzako eta foru-aldundietako sailen kopurua handitzea eta egitura horietan parte hartzen duten arloen zenbatekoa ere handitzea. GO13.4 Nazioarteko lankidetzako guneak ugaritzea.
V. PROGRAMA: PARTE- HARTZEA ETA ERAGINA.	GO. 14 Emakumeek eta gizonen zuzendaritza-organismoetan edo organo pluripertsonaletan ordezkaritza orekatua izan dezaten sustatzea.	GO14.1 Emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua duten kide anitzeko zuzendaritza-organoen ehunekoa handitzea. GO14.2 Emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua duten epaimahaien edo antzeko organoen ehunekoa handitzea. GO14.3 Emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua duten hautaketa-epaimahaien ehunekoa handitzea.
	GO. 15 Kontsultarako eta parte hartzeko guneetan genero-ikuspegia sartzea.	GO15.1 Herritarrek parte hartzeko batzorde edo organo berdintasunerakoak dituzten erakunde publikoen zenbatekoa handitzea. GO15.2 Osaeran eta funtzio eta helburuen artean berdintasuna txertatzen duten kontseilu eta organoen kopurua gehitzea. GO15.3 Emakumeek politika publikoetan parte hartzeko batzordeen, organoen, plataformen eta beste modu berrien eragina handitzea.



1. ARDATZA.: Emakumeak ahalduentzeko programak eta helburuak?

1. PROGRAMA: EMAKUMEEN AHALDUNTZE PERTSONALARI ETA KOLEKTIBOARI LAGUNTZEA	1.1 Giza garapen jasangarriako emakumeek eta feminismoak duten zereginaren onarpena sustatzea.	1.1.1 Berdintasunaren arloko gizarte-aurrerapenean emakumeek eta feminismoak egindako ekarpenen agerikotasuna eta onarpena handitzea. 1.1.2 Gehien feminizatutako bizitzako eremuen gizarte-balioespena handitzea. 1.1.3 Emakumeek eta feminismoak bizitzaren eremu guztietan egiten dituzten lorpenak eta ekarpenak gizarte-komunikabideetan hedatzen laguntzen duten programen eta edukien kopurua handitzea.
	1.4 Baliabideak hobetzea, halako moldez non emakume guztien askotariko egoerek, esperientziek eta premiek beren aldaketan eragin dezaten, bereziki desberdinkeria handienak dituzten baliabideetan.	1.4.2 Garraio eta ekipamendu publikoaren estaldurarekin pozik dauden emakumeen kopurua handitzea, bereziki landa-ingurunean, talde- eta behar-aniztasuna aintzat hartuta.
2. PROGRAMA: EMAKUMEEN AHALDUNTZE SOZIALARI ETA POLITIKOARI LAGUNTZEA	2.1. Gizarte- eta herri- mugimenduetatik berdintasuna sustatzea.	2.1.1 Emakumeen berdintasuna lortzearen alde lan egiten duten emakume elkarteak kopurua handitzea. 2.1.2 Egitarauetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzko helburuak dituzten erakunde sozialen kopurua handitzea. 2.1.3 Munduan emakumeen eta gizonen eskubide berdintasuna eta, bereziki, emakume errefuxiatuen eta migratuen eskubideak sustatzen dituzten emakume elkarteak eta gizarte-erakundeak kopurua handitzea.
	2.2. Emakumeek gizartean parte har dezaten sustatzea, eremu eta gune guztietan.	2.2.3 Gizarte-, sindikatu-, enpresa- eta politika-erakundeetan parte hartzen duten emakumeen kopurua handitzea. 2.2.4 Gizarte- eta politika-arloan parte hartzen duten emakumeen kopurua handitzea, parte hartzeko formula edo gune berrien bidez.
	2.3. Erabaki- eta zuzendaritza-eremuetan emakumeen presentzia eta eragina handitzea	2.3.1 Emakumeen presentzia indartzea ordezkari eta ardura politiko publikoko postuetan. 2.3.3 Elkarte-mugimenduko, irabazi asmorik gabeko erakundeetako –kulturaren, kirolaren eta aisialdiaren arlokoak bame–, erakunde politikoetako, sindikatu etako eta enpresa-erakundeetako erabaki postuetan eta guneetan dauden emakumeen kopurua handitzea.

Erakunde guztien eskumenekoak diren helburuak nabarmentzen dira, baita Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren eskumen espezifikoak diren helburuak ere.

II. ARDATZA: Eskubideak bermatu ahal izateko ekonomiak eta gizarte-antolamendua eraldatzeko programak eta helburuak³

3. PROGRAMA: BERDINTASUNA GIZARTEA ETA EKONOMIA ERALDATZEKO BEHARREZKO BALIOA DELA AITORTZEA	3.1.– Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna gizarte-balioa dela onartzeko laguntza ematea.	3.1.1 Berdintasuna eta gizarte-aurrerapena lotzen dituzten pertsonen kopurua handitzea. 3.1.2 Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-eza gizarte-arazo garrantzitsutzat hartzen duten pertsonen kopurua handitzea. 3.1.3 Emakumeei eta gizonari bizitzeko hainbat arlotan rol eta estereotipo bereziak esleitzen dizkieten ume, gazte eta helduen kopurua gutxitzea. 3.1.4 Berdintasuna gizarte-balio modura sustatzearekin konpromisoa duten komunikabideen kopurua handitzea. 3.1.5 Gizarte-komunikabideetan neskatoen, mutikoen, gazteen eta helduen presentzia orekatua eta aniztasuneko eta estereotipo sexistarik gabeko irudia sustatzen duten programen eta edukien kopurua handitzea bizitza sozialeko arlo guztietan.
	3.3.– Antolaketa-erakunde eta enpresaren kultura berdintasunaren alde kokatzea	3.3.1 Kultura eta enpresa-praktikak berdintasunerantz aldatzeko ikuspegia txertatzen duten berdintasun-planak dituzten erakunde publiko, gizarte-agente, enpresa eta erakunde pribatuaren kopurua handitzea. 3.3.2. Hitzarmen kolektiboetan, enpresa-itunetan edota funtzio publikoaren arloko akordioetan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren printzipioa sartzen duten enpresen eta erakunde publikoen kopurua areagotzea. 3.3.3 Gen ero-ikuspegia duten kudeaketa aurreratuak sistemak txertatzen dituzten erakunde publiko, gizarte-eragile, enpresa eta erakunde pribatuaren kopurua handitzea 3.3.4 Berdintasunera bideratutako aldaketarako gogoeta- eta eragin-guneetan parte hartzen duten erakundearen eta enpresen kopurua handitzea.
4. PROGRAMA: AUTONOMIA EKONOMIKOA EMAKUMEENTZAT	4.1.– Enplegu gehiago eta hobeak sortzea.	4.1.4 Zainketa-erakundeekin lotutako enplegu-sorguneak erabat garatzea, sektore horretan kalitatezko enplegua sortuz. 4.1.7 Ema kumeen eta gizonen batez besteko urteko soldata gordinen arteko etena txikitzea, batez ere, alde handiena duten sektoreetan.
	4.2.– Pobreziaren feminizazioa murriztea.	4.2.3 Erak undeek eskainitako erantzunak eta baliabideak (zerbitzu sozialak eta gizarteratzekoak, ekonomikoak, osasuna, hezkuntza, kultura, enplegua, justizia, segurtasuna eta etxebizitza) pobreziako edo bazterketako arriskuan edo egoeran dauden eta/edo beharizan bereziak dituzten emakumeen beharretara hobeto egokitzea.
5. PROGRAMA: ZAINKETA EKONOMIA FEMINISTA.	5.1.– Zaintza bizitzaren jasagarritasunerako ezinbesteko baldintza dela sozialki onartzea.	5.1.1 Zain keta-lanak naturalki emakumeen ardura direla ukatzen duten eta horiek gizarte-premia bat direla eta horiek hornitzeko gizonak, erakundeak, enpresak eta erakunde publikoak eta gizarte zibila inplikatzeko beharrezkoa dela ulertzen duten gazteen eta helduen kopurua handitzea. 5.1.2 Ered u maskulino tradizionala zalantzan jartzen duten eta berdintasunarekin koherenteak diren eta zainketa-lanekiko konpromisoa duten jarrera eta portaerak dituzten gizon gazte eta helduen kopurua handitzea. 5.1.3 Gaur egun zainketa-erakunde dagoen arreta-eredua hazten ari den zainketa askotariko eskarira egokitzea aztertzea, erantzuna hobetzeko xedez, erantzunkidetasuneko eta zainketa-lanen onarpen sozial eta ekonomikoko ikuspegi batetik. 5.1.4

Erakunde guztien eskumenekoak diren helburuak nabarmentzen dira, baita Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren eskumen espezifikoak diren helburuak ere.



		Ezta baida publikoa sustatzea, zertarako eta, gaur egungo eredu ekonomikoaren bidez, bizitzaren jasangarritasunean oinarritutako garapen-eredu bat bultzatzeko
	5.3.– Zaintzen antolakuntza sozial berri bat babestea, horien gaineko ardurak birbanatzeko.	5.3.1 Gen eroen arteko etena murriztea emakumeek eta gizonen ordaindu gabeko zainketa-lanetan ematen duten denboran. 5.3.2 Haur eta gazteek zainketa-lanak egiten ematen duten denbora handitzea, mutilei arreta berezia jarritz. 5.3.3 Bater atze erantzunkideko neurriei heltzen dieten gizonen kopurua handitzea. 5.3.4 Bater atze-neurriei heltzeko gizonen eta emakumeen hautematen duten zailtasun-maila murriztea. 5.3.5 Amat asuneko eta aitaltasuneko baimenak parekatzeko aukera sustatzea, berdinak eta besterenezinak izan daitezzen 5.3.7 Administrazio eta enpresa publikoek hartutako bateratze erantzunkideko neurrien kopurua handitzea. 5.3.9 Herri tarrei zuzendutako zerbitzu publikoen ordutegi-malgutasuna handitzea. 5.3.10 Bateratze erantzunkidea eta pertsonen autonomia erraztuko duten hirigintza-plangintzako eta etxebizitzaren, gune publikoen eta garraiobide jasagarrien diseinuko irizpideak aplikatzea.
III. ARDATZA: Emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzak lortzeko Programak eta Helburuak		
6. PROGRAMA: SENTSIBILIZAZIOA ETA PREBENTZIOA.	6.1.– Indarkeria estrukturala eta kulturala murriztea.	6.1.1 Emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko konpromisoa hartzen duten eta berorren defentsa sustatzen duten pertsonak gero eta gehiago izatea, batik bat adingabeen arduratzen direnak, edo adingabeentzako eredu direnak. 6.1.2 Pertsonak euren sexuaren arabera maila handiagokoak edo txikiagokoak direla adierazten duen irudi eta eduki mediatiko oro kentzea, baita pertsonak sexu-objektu huts bezala aurkezten dituztenak edota emakumeen aurkako indarkeria justifikatzen, hutsaltzen edota bultzatzen dutenak ere, hedabideetan agertzearen ondorioz berriro biktimizatzea saihesteko. 6.1.3 Emakumeen kontrako indarkeriaren informazio-trataera hobetzea, genero-desberdintasuna indarkeria sortzen duen elementu gisa ikus eta aurkez dadin, eta emakumeak borrokaren eragile aktibo gisa. 6.1.4 Berdintasun-ezaren eta emakumeen aurkako indarkeriaren arteko lotura ikusarazten duten programetan eta jardueretan parte hartzen duten edo hura prebenitzeko ahaleginak egiten dituzten eta gatazkak indarkeriarik gabe konpontzea sustatzen duten pertsonen, batez ere mutilen eta gizonen, kopurua areagotzea. 6.1.5 Emakumeen aurkako indarkeria-motei eta horiek berdintasun-ezarekin duten harremanari buruzko gizarte-pertzepzioa areagotzea, batik bat indarkeriaren modu zorrotz eta ezkutukoenei buruzkoa.
	6.2.– Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko informazioa, ikerketa eta prestakuntza hobetzea.	6.2.1 Informazioa biltzeko eta homogeneizatzeko sistemak hobetzea, EAEn gertatutako emakumeen kontrako indarkeria kasuei buruzko datu eguneratuak izateko eta gai horretan parte-hartze publikoa hobetzeko. 6.2.2 Emakumeen aurkako indarkeria eta haren adierazpenak hobeto ezagutzea. 6.2.4 Indarkeriaren kontzeptualizazioari eta esku-hartzeetan horrek dituen ondorioei buruzko hausnarketa bultzatzea, indarkeria-mota berrietan arreta berezia jarritz. 6.2.5 Emakumeen aurkako indarkeriaren biktima izanik bizirik geratu direnei arreta ematen esku-hartzen duten profesionalen prestakuntza iraunkorra, behar bestekoa eta eremu eta ardura-maila guztietara egokitutakoa jaso dezaten bermatzea. 6.2.6 Beren esku-hartzean emakumeen ahalduztze pertsonala eta kaltea konpontzearen kontzeptua txertatzeko behar besteko trebakuntza duten profesionalen kopurua handitzea.
	6.3.– Emakumeen aurkako indarkeriaren prebentzioa sustatzea eta sendotzea.	6.3.4 Emakumeenganako indarkeriaren alorreko prebentzio- eta arreta-programak eta -neurriak eraginkorrako egitea.
7. PROGRAMA: KALTEA HAUTEMATEA, ARRETA EMATEA ETA KONPONTZEA	7.1.– Emakumeen aurkako indarkeriaren hautemate goiztiarra handitzea.	7.1.1 Emakumeen aurkako indarkeriaren detekzio goiztiarrean era proaktiboan eta ezarritako protokoloen arabera jardungo duten profesionalak gehitzea (hezkuntza-, osasun-, polizia-, epaitegi-, lan- eta gizarte-sisteman). 7.1.2 Esku-hartzeko eremu guztietan indarkeriaren detekzio goiztiarra handitzea, indarkeria psikologikoan arreta berezia jarritz. 7.1.3 Informazio egokia jasotzen duten emakume biktimen kopurua handitzea, arreta integraleko prozesuaren aurretik, bitartean eta ondoren bere itzaropenei egokitutako erabakiak hartu ahal izan dituztenak. 7.1.4 Edozer motatako indarkeria jasan duten eta zerbitzuak eta baliabideak goiz erabiltzea erabakitzen duten emakumeen kopurua handitzea, zerbitzu eta baliabide horietara heltzeko zailtasun handienak dituztenengan arreta berezia jarritz.



	7.2.– Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei arreta integrala bermatzea, ahaldundutzearen ikuspegitik, esku-hartze horretan nazioarteko estandarrekin bat eginez.	7.2.1 Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko baliabideen kalitatean, sarbidean eta hornikuntzan lurraldeen eta udalen arteko aldeak murriztea, batik bat landa-eremuko udalerrietan. 7.2.2 EAEn dauden berariazko baliabide eta zerbitzuek gizakien salerosketaren biktimei direla-eta artatzen dituzten emakumeen eta neskatoen kopurua handitzea. 7.2.3 Beren lantokian sexu-jazarpenaren eta sexuagatiko jazarpenaren aurkako prebentzio- eta laguntza-protokoloen estaldura duten pertsonen kopurua areagotzea. 7.2.4 Arriskuan dauden taldeetan egoteagatik sortutako egoerei erantzuteko behar adinako baliabideak dituzten arreta-zerbitzuak gehitzea, ikuspegi intersektionaletik. 7.2.5 Emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei diren seme-alaben berariazko premiak betetzeko baliabideak dituzten arreta-zerbitzuen kopurua handitzea, ikuspegi intersektionaletik. 7.2.8 Behar duten kasuetan, emakumeen aurkako indarkeriaren biktimei etxebizitza bat izan dezaten bermatzea, berariaz egokigarritasunaren printzipioa erabiliz. 7.2.10 Sexu-indarkeriako kasuen aurreko arreta emateko sistemaren erantzuna hobetzea.
	7.3.– Norbanakoek eta taldeek kaltearen ordaina jasotzeko duten eskubidea bermatzea	7.3.1 Bizirik atera diren biktimak eta haien seme-alabak erabat osatzen laguntzeko baliabide publikoak ugaritzea, haietako bakoitzaren eta indarkeriak haiengan dituen ondorioen aniztasuna onartuz. 7.3.2 Emakumeen aurkako indarkeriaren gaitzespena, biktimganako errespetua –jazotakoa haien ahotik kontatuz, egia zabaltzen dela bermatzeko– eta bizitakoaren gizarte-onarpena –berriro biktimizatzea saihesteko– adierazten duten ekintza publikoen kopurua handitzea. 7.3.3 Kaltea errepika ez dadila bermatzeko formulak aztertzea, arreta eragilean jarriz, emakume guztiek indarkeriarik gabeko bizitza izatea bermatzeko.
8. PROGRAMA: ERAKUNDE ARTEKO KOORDINAZIOA	8.1.– EAEn emakumeen aurkako indarkeriari heltzen dioten erakundeen arteko esku-hartze koordinatua sustatzea.	8.1.1 EAEn emakumeen aurkako indarkeriaren arloan dagoen araudia errealitate horri erabat ekiteko behar diren aurrerapen eta erronka berriekin bat etorraraztea. 8.1.2 Indarrean dauden erakunde arteko koordinazioko akordioak emakumeen aurkako indarkeriaren arloko araudira, tekniketara eta gizarte-aldaketetara egokitzea. 8.1.3 Emakumeen kontrako indarkeria-kasuetarako prebentzio- eta arreta-protokoloak, egoera ezberdinetara egokitututa daudenak: horrelako protokoloen estaldura duten biztanle kopurua gehitzea.



3

SAILAREN
ESTRATEGIKOA

PLANGINTZA

3.1. DIAGNOSTIKORAKO DATU GARRANTZITSUAK

3.1.1. GOBERNU ONA

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak gobernu onerako duen konpromiso-mailaren diagnostikoa egiteko orduan, honako auzi hauek aztertu dira programa bakoitzerako (VII. Planean eta haren adierazleetan gobernu onerako aurreikusitako neurriekin korrelatiboak):

I. PROGRAMA: KONPROMISO POLITIKOA

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren konpromiso politikoaren diagnostiko xehatua egin da, eta honako alderdi hauek aztertu dira:

Alderdi garrantzitsuak

Berdintasunerako politikak garatzeko **aurrekontua** apur bat handiagotu da aurreko legegintzaldietan; izan ere, aurrekontua Berdintasunerako Administrazio-unitateko posturako baliabidean ia erabat kontzentratuta egotetik beste berdintasun-partida espezifiko batzuk ere barne hartzera aldatu da. Horrela, berdintasun-arloan gauzatutako aurrekontuak 2015ean 48.790 € ziren, 2017an 71.212 € eta 2020an 257.695 €. 2017ko aurrekontuetatik aurrera, 6.000 €-ko partida espezifiko bat gehitu zen, Berdintasun Unitatearen jarduketak gauzatzeko. Gaur egun, 15.000 €-ko aurrekontua du. Bestalde, 2017an udal-plangintzan eta hirigintzan genero-ikuspegia txertatzeko sortutako laguntzen aginduak (200.000 €) indarrean jarraitzen du gaur egun, eta, lurralde-plangintzan, hiri-berroneratzean eta etxebizitzan, genero-ikuspegia sektore-eremu horietan txertatzeko hainbat azterketa-lan egin dira, dagokion aurrekontu-betearazpenarekin. **Nolanahi ere, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzera bideratutako aurrekontua handitzea eta aurrekontu hori ikusaraztea da erronka.**



Berdintasunarekin lotuta sailak egindako plangintzari dagokionez, azpimarratzekoa da 4 legegintzaldi-plan eta urteko 15 plan onetsi direla orain arte eta, halaber, 2005ean eta 2006an Ekintza Positiboko Planean bi ekintza-proposamen ere egin zirela. Edonola ere, nabarmendu egin behar da sail honen eskumen-esparruak aldatu egin direla aipaturiko legegintzaldi guztietan.⁴ Urteak igaro ahala, hobekuntzak sartu dira plangintzan: konpromiso berriak zehaztu eta hartzeaz gain, dokumentua, proposamenak, metodologia eta koordinazioa argitu egin dira. Bestalde, aipatzekoa da sailari atxikitako sozietate publiko eta erakunde guztiek beren berdintasun-plan propioak dituztela gaur egun.

Legegintzaldi honetan, plangintza zehatzagoak eta argiagoak egitea izango da erronka, konpromiso zehatzak eta baliabideak barne hartuko dituztenak, eta parte-hartze tekniko-politiko handiagoa izango dutenak.

► Azkenik, **berdintasunerako unitate administratiboak** sortzeari eta indartzeari dagokionez, nabarmendu behar da Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko teknikari bat duela, azaroaren 27ko 213/2007 Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Edonola ere, hobetu beharreko eremuak hauteman dira berdintasuneko teknikarien egoerari eta mailari dagokionez eta horiek ikusgai egiteari dagokionez.

⁴ Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila 2018-2021/X. Legegintzaldiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Programa Dokumentua. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Ekonomia Saila/Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Dokumentua-Programa IX. legegintzaldirako. Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila/Ingurumen eta Lurralde Plangintza Sailaren Berdintasun Politikako 2007-2009 Dokumentu Pragmatikoa.

II. PROGRAMA: BERDINTASUNERAKO TREBAKUNTZA.

Alderdi garrantzitsuak

- Saileko langileek berdintasunaren arloan duten trebakuntza-mailaren diagnostiko xehatua egin da, eta honako alderdi hauek aztertu dira:

IVAP-EN PRESAKUNTZA OROKORRA	2016	2017	2018	2019
Emakumeak	3	21	45	24
Gizonak	0	9	26	5
Guztira	3	30	71	29
SAILAK SUSTATUTAKO SEKTORIALA	2016	2017	2018	2019
Emakumeak		34	83	23
Gizonak		9	21	4
Guztira		43	104	27

Saileko langileek 2020an emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan jasotako prestakuntzari dagokionez, 24 lagunek egin zituzten emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko prestakuntza-jarduerak (19 emakumek eta 5 gizonek).

Bestalde, aipatzekoa da sailean azken urteotan egindako lana, bertako langileek emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan egiten duten prestakuntza hobetzeko eta egituratzeko. Zehazki, 2020an, "Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan dituen prestakuntza-beharren diagnostikoa" egin zen, eta, horretan oinarrituta, "2022-2024 urteetarako berdintasun-arloko prestakuntza-plan bat" egiteko lan egin zen 2021ean.

Ildo horretan, legegintzaldi honetako erronka da plana eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko prestakuntza areagotzeko egin diren gomendioak abian jartzea eta saileko sektore-eskumenekin eta langileen errealitateekin bat datorren prestakuntza eskaintzea, maila teknikoan zein politikoan.

III. PROGRAMA: GENERO-IKUSPEGIA LAN-PROZEDURETAN.

Sailaren lan-prozeduretan genero-ikuspegia txertatuta ote dagoen aztertzeko azaleko diagnostikoa egin da, eta honako alderdi hauek aztertu dira:

Alderdi garrantzitsuak

- Genero-ikuspegia **estatistiketan eta azterlanetan** txertatzeari dagokionez, esan behar da saileko estatistika ofizialetan sistematikoki txertatzen eta bereizten dela sexuaren aldagaia, eta beste desberdintasun-egoera batzuekiko gurutzaketa edo genero-arraileen identifikazioa puntualagoa da; era berean, ez dago generoaren adierazlerik. Edonola ere, azpimarratu behar da Lurralde Plangintzaren esparruak gaur egun ez duela pertsonen buruzko eragiketa estatistikorik; izan ere, horiek guztiek lurraldeko aldagaiei (gainazala, lurzorua kalifikazioa...) egiten diete erreferentzia.

Genero-ikuspegia estatistiketan eta azterlanetan txertatzeko aurrerapausoak ematen jarraitzea izango da Legegintzaldi honetako erronka, hobekuntzak, azterketa zehatzen premiak eta genero-adierazleak identifikatuz.

- **Enplegu publikora sartu eta bertan mailaz igotzeko hautaketa-prozesuetan** berdintasunarekin lotutako edukia txertatzeari dagokionez, nabarmendu behar da Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak duela, Eusko Jaurlaritzaren barruan, enplegu publikora iristeko hautaketa-prozesuen eskumena. Sailaren erantzukizuna zerbitzu-eginkizunak eta izendapen askeko lanpostuak betetzeko prozesuetara mugatzen da.

- **Komunikazioan** berdintasuna txertatzeari dagokionez, azpimarratu behar da lanean jarraitzen dela sailak sortutako dokumentu eta euskarri guztiek hizkuntzaren eta irudien erabilera inklusiboa eta ez-sexista egin dezaten.

Erronka, beraz, lanean jarraitzea da, komunikazio mota guztietan hizkuntzaren eta irudien erabilera ez-sexista egiten dela bermatzeko.

- **Araudian berdintasun-printzipioa txertatzearekin lotuta**, «*Genero-eragina aurretiaz ebaluatzeko eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak desagerrarazteko eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzeko jarraibideak onartzen dituen*» Gobernu Kontseiluaren 2012ko abuztuaren 21eko 40/2012 Erabakian ezarritakoari lotzen zaio sail hau.

Edonola ere, hobetu daitezkeen esparruak detektatu dira prozedura eta haren edukia ezagutzearekin lotuta eta, horregatik, inpaktua generoaren arabera analizatzeko prozesuak hobetzeko eta egokiro txertatzeko erronka izango dugu Legegintzaldi honetan.

Sailaren **aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzeari** dagokionez, berriz, nabarmendu behar da azken urteetan, aurrekontu-programa guztietan egin dela generoaren araberako inpaktuaren alde aurreko balioespenaren analisia, Ekonomia eta Ogasun Sailak eskatuta. Era berean, "Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren aurrekontuak genero-ikuspegitik aztertzeko txostena" ere egiten du. Txosten horretan honako hauek jasotzen dira: biztanleriaren diagnostiko sozioekonomikoa, zeinari zuzentzen baitzaizkio sailaren jardura nagusiak, sailak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan duen estrategia orokorra eta proposatutako jarduerak.

- **Lan-prozesuak sortzea da erronka, eta hori aldaketetan islatu dadila, betiere genero-ikuspegia aurrekontu-memoretan txertatzeko eta berdintasunean egindako gastua ikusgai egiteko helburuarekin.**

- Genero-ikuspegia Sailaren **sektorekako eta zeharkako planetan** txertatzeari dagokionez, berdintasun-unitateak edo berdintasuneko beste pertsona aditu batzuek parte hartzen duten planen ehunekoa handitzea izango da Legegintzaldiko erronka.

- **Kontratueta, dirulaguntzeta eta hitzarmeneta** berdintasunerako klausulak txertatzeari dagokionez, nabarmendu behar da, berdintasun-politikak ebaluatzeko 2021eko datuen arabera, sailak urte horretan egindako kontratazioen % 92k berdintasun-irizpideak dituztela (gehienetan, gauzatze-baldintza berezien definizioan, eta kontratuen % 7an adjudikazio-irizpideetan). Dirulaguntzei dagokionez, berdintasun-klausulak gutxiago txertatu dira; 2021ean, kontratuen % 17an txertatu zen.

Beraz, legegintzaldi honetarako erronka izango litzateke 4/2005 Legearen aldaketak aplikatuz berdintasun-klausulak txertatzen dituzten kontratuen, diru-laguntzen eta hitzarmenen kopurua handitzea eta horien jarraipena egiteko prozedurak ezartzea.

IV. PROGRAMA: KOORDINAZIOA ETA ELKARLANA.

Sailaren koordinazio- eta lankidetzaz-prozesuen azaleko diagnostikoa egin da, berdintasun-politikak ezartzeko honako auzi hauek aztertuta:

Alderdi garrantzitsuak

- Berdintasunerako koordinazioa eta lankidetzaz indartzeaz dagokionez, esan behar da Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak Berdintasunerako Sailarteko Talde Tekniko bat (STT) duela. Zuzendaritza guztiek parte hartzen dute bertan, baita sailari atxikitako sozietate publikoek eta erakundeek (VISESA, ALOKABIDE, Euskotren eta Euskal Trenbide Sarea-ETS) ere. Maila politikoan ere badu ordezkaritza lantalde horrek, eta nahiko lan- eta koordinazio-dinamika sendoa du.

Edonola ere, aurrera egiten jarraitzea eta STT hori indartzen jarraitzea da erronka, hura ikusgai eginez, baliabideak eskainiz eta taldearen eta taldeko kideen koordinazioa eta maila hobetuz.

V. PROGRAMA: PARTE-HARTZEA ETA ERAGINA.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren zuzendaritza-organoetan eta partaidetza-espazioetan emakumeen eta gizonen partaidetza-prozesuari eta intzidentziari buruzko azaleko diagnostikoa egin da, eta honako alderdi hauek aztertu dira:

Alderdi garrantzitsuak

- Genero-ikuspegia partaidetza- eta kontsulta-eremuetan txertatzeari dagokionez, esan behar da aurreko Legegintzaldi Planaren jarduketan artean eta gaur egungo plangintzen artean genero-ikuspegiaren txertaketa lantzen ari dela, emakumeen parte-hartzea areagotzeko neurriak txertatuz edo prozesuetara emakume-elkarteak edo elkarte feministak gehituz.

Edonola ere, legegintzaldian Sailak abiaraziko dituen partaidetza-prozesu guztietan genero-ikuspegia txertatzeko formula berrietan aurrera egin behar dugu ezinbestean.

3.1.2. BERDINTASUNAREN ALORREAN ESKU HARTZEKO ARDATZAK

LURRALDE-PLANGINTZA, HIRIGINTZA ETA HIRI-BERRONERATZEA

ALDERDI GARRANTZITSUAK

Jarraian, genero-ikuspegia **HIRIGINTZAN ETA LURRALDE-ANTOLAMENDUAN** txertatzeko kontuan hartu beharreko alderdiak zehazten dira, "Genero-ikuspegia Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetan" deritzon txostenetik aterata:

1. Genero-erolek, ordaindu gabeko lanak eta lanaren sexu-banaketak eragina du gizonen eta emakumeen hiria modu desberdinean erabil dezaten:

- Pertsonen premia eta itxaropen desberdinak dituzte lurraldearekiko eta hirigunearekiko, bakoitzak eguneroko bizitzan hartzen duen genero-rolaren arabera. Ordaindu gabeko lana eta sexuaren arabera lanaren banaketa gako-konzeptuak dira zentzu horretan.
- Denboraren erabilera desberdina gizonen eta emakumeen artean, gizonen eta emakumeen beren gain hartzen dituzten genero-rolak direla eta.
- Ordaindutako eta ordaindu gabeko lan-karga bakoitzak pertsona askoren premiak eta itxaropenak finkatzen ditu, gehienetan emakumeak, eremu publikoari, garraioari, ekipamenduei (lurralde eta hiri alorrekoak), lanpostuei eta merkataritzari, eta etxebizitzari dagokienez.
- *Eguneroko bizitzaren eta zeregin-katearen* kontzeptu operatiboak ere kontuan hartzekoak dira. Eguneroko bizimoduaren bidez, honako hauek uler ditzakegu: hiria erabiltzean egunean, astean, hilabeteen, bizitzan edo beste denbora-ziklo batzuetan gertatzen diren erregularitasunak edo zereginen kateak. Hori oso garrantzitsua da lan-karga bikoitza gauzatzen duten pertsonentzat, egunerokotasuneko jardueren eguneko aldizkakotasunak izaten baitituzte, baina baita astekoak edo hilekoak ere; gainera, eginkizunen kateak desberdinak izaten dira, askotan, asteko egun batean edo bestean. Horrez gain, pertsonen bizi-zikloak duela hamarkada gutxi baino askoz gehiago aldatzen dira orain, eta modu desberdinean aldatzen dira gizonen eta emakumeen artean, genero-rolen emaitza gisa.
- Enplegua eta zaintza-lana bateratzen dituzten pertsonen eguneroko zeregin-kate horiek hirian sortzen dituzten premiak hirigintzaren arloko hainbat sektoretan erakusten dira: mugikortasunean, azpiegitura eta ekipamenduetan, lantokietan, merkataritzan, etxebizitzetan eta gune publikoetan. Hortaz, kontuan hartu behar dira, lurralde-plangintza eta hirigintza antolatzen direnean. Nazio Batuen Erakundeak eta Europako Batzordeak, beste nazioarteko erakunde batzuen artean, adierazi dute hirigintza eta lurraldearen antolaketa politika publikoaren arlo funtsezkoak direla, emakumeen eta gizonen aukera berdinak sustatzeko bidean.

2. Gune publikoetan eta garraibideetan emakumeen eta gizonen ezberdin sentitzen dute segurtasuna, eta hori oztopoa da emakumeen hiri-ondasunak eta -zerbitzuak baldintza berdinetan erabili ahal izan ditzaten.

- Azterlan askotan erakutsi da emakumeen beren mugikortasuna eta hiriaren erabilera murrizten dituztela, sexu-

erasoen edo emakumeen aurkako beste indarkeria mota batzuen arriskua dela eta.

- Azterlanei jarraikiz, segurtasuna zehazte aldera, polizia-etxeetan egiten diren salaketak edo egindako krimenak baino askoz ere adierazgarriagoak dira norberaren pertzepzioak leku zehatz baten segurtasunari buruz. Horrenbestez, alderdi hori landuko bada, kontuan hartu beharko da emakumeen pertzepzioa eta emakumeen bizipena gune publikoetan, sexu-erasoen edo beste eraso mota batzuen gaineko estatistikei erreparatu beharrean.

3.Emakumeen pobrezia erlatiboa eta faktore horrek beste diskriminazio-ezaugarri batzuekin duen elkarrekintza: egoera zibilarrekin lotutako familia-kargak (familia gurasobakar amadunen eta pertsona bakarreko familien kasuan), arraza, adina, gaitasun funtzionala, genero-indarkeriaren biktimak.

- Emakumeek gizonek baino gaitasun ekonomiko txikiagoa dute, eta horrek hiri-ondasunak eta -zerbitzuak erabili ahal izateko aukerak murrizten ditu.
- Emakumeen gaitasun ekonomiko txikiagoak honako faktore hauetan du jatorria, besteak beste: generoaren araberako soldata-arrailan; lan-merkatuetako bereizketa horizontalean, emakumeak prestigio gutxien duten eta gutxiago ordaintzen diren sektoreetan pilatzen baititu; segregazio bertikalean, maila baxuko eta, beraz, soldata baxuko lanpostuetan pilatzen baititu, sektore guztietan; emakumeak lanaldi partzialeko behin-behineko lanpostuetan pilatzen dira; horien langabezia-tasa handiagoetan; bizitza osoan zehar izaten dituzten lanik gabeko denboraldi luzeagoetan, enplegu ordaindua uzteko premia eragiteaz gain, horrek pertsona zaharren, adingabeen edo mendekotasuna duten pertsonen zaintza-lanak bereganatzea esan nahi baitu.
- Familiako buru diren emakumeek gain, bereziki zaurgarriak dira orobat genero-indarkeriaren biktimak, emakume zaharrak, emakume beltzak eta gaitasun funtzional murriztua duten emakumeak. Emakume horiek etxebizitzarekin, garraioarekin, eremu publikoarekin, lanpostuekin eta ekipamenduekin lotutako premia zehatzak izaten dituzte.

4.Emakumeek hiriko eraikuntzarekin eta lurralde-gobernuaren egiturekin lotutako lanpostuetan duten ordezkartza txikia; eta generoaren ezagutza aditurik eza.

- Hirigintzan, arkitekturan eta ingeniartzan txikia izaten da emakumeen ordezkartza. Emakumeak erabakiak hartzeko gaitasun gutxi duten lanpostu ezegonkorretan pilatzen dira, eta horrek, lanbidea alde batera uztearekin batera, arkitekto eta hirigile emakume askoren errealtatea izaten jarraitzen du.
- Erabakiak hartzeko prozesuetan emakume gutxi baldin badaude, horrek jardunbide profesionalei eragingo die, eta zer eraikitzen den eta nola eraikitzen den baldintzatuko du. Faktore horrek lanbidearen eta kulturaren eraikuntza maskulinoa sustatzen du, eta horren araberako lehentasunei eta arazoei erantzuten zaie.
- Agenda eta kultura profesionalean benetako aldaketa-egoerak gerta daitezen behar-beharrezkoak dira, batetik, masa kritiko bat, emakume kopuru nahikoa alegia, eta, bestetik, aditu-mailako jakintza genero-gaietan.

«Zaintzaren hirigintzarako» hiri-eredua

- Genero-ikuspegia lurralde- eta hiri-plangintzan txertatuz gero, eremu publikoak, ekipamenduak, etxebizitza eta abar beste modu batera pentsatzen dira, familiaren zaintzarekin lotutako eguneroko eginkizunak bete eta lan ordaindua ahalgin eta zailtasun gutxiagorekin egin ahal izateko moduan, hain zuzen ere; era berean, eremu publikoek eta garraioak seguruak izan behar dute, zaurgarritasun-egoeran bizi diren emakumeen espazio- eta hiri-

premiak –gaitasun ekonomikoarekin lotutako mugak barne– kontuan hartu behar dira, hala, herritar guztien bizi-kalitatea hobetuko duten lurralde eta hiri seguruagoak eta bidezkoagoak sortzeko.

- Gainera, emakumeek erabakiak hartzeko prozesuetan duten eragiteko gaitasuna bermatzea ere badu helburu generoa plangintzan txertatzeak. Horretarako, oso garrantzitsua da horiek erantzukizuneko lanpostuak lortu eta udalaz gaindiko nahiz udaleko plangintzan parte har dezatela sustatzea.
- Zaintza, proposamenak artikulatzen diren ardatz zentrala. Zaintzak lurraldearen plangintzan, eraikuntzan eta kudeaketan eragiten dituen ondorioetan oinarritzen diren proposamenak.
- Zaintzaren premiei hobeto erantzungo liekeen hiri-eredua nahiko hiri trinkoa izango litzateke, honako hauek eskaintzen dituen: distantzia motzak eta gertutasuna, garraio-sistema publiko egokia, kalitatezko espazio publiko eta garraio seguruak, erabileren nahasketa, eta auzoetan ekipamendu-sistema egokia izango duena adingabeen eta mendeko pertsona zaharren zaintzarako beharrezko ekipamenduak izango dituen, ohiko plangintza-sistemak jasotzen dituen betiko asistentzia-, eskola-, osasun-, hezkuntza-, kirol- eta kultura-ekipamenduez gain. Enplegu ordaindua zaintza-lanekin bateragarri egitea ahalbidetuko duen hiri izango litzateke, erantzukizun bikoitz hori hartzen dutenei enplegu-tokietara eta bizitzari eusteko behar diren ekipamenduetara iristeko aukera emango dielako, gutxieneko denboran, eskatutako ordu-tarteetan, erosotasun- eta segurtasun-baldintzetan eta arrazoizko kostu ekonomikoekin.

Gainera, **HIRI-BERRONERATZE**an genero-ikuspegia txertatzeko kontuan hartu beharreko alderdiak jasotzen dira

Berroneratze-politikak eta politika hori formalizatzen duten tresnek gizonen eta emakumeen arteko berdintasunean aurrera egiteko duten gaitasun eraldatzailea baliatu behar dute jarduteko lehentasun gisa.

Hiri-berroneratzeak, izaera holistikoa duenez, lehentasun horretan politikaren bidez aurrera egiteko aukera ematen du.

Ikuspegi hau programa eta estrategietan txertatzeak aukera ematen du jarduketa-eremuan biltzen diren talde sozialen arteko ezberdintasunak ulertzeko eta horietan arreta jartzeko, baita horiek guztiek bizi diren auzoaren inguruan dituzten beharrian, problematika eta itxaropen guztiak kontuan hartzeko ere.

Horien artean, emakumeek talde heterogeneoa osatzen dute (emakume guztiek ez dituzte beharrian berberak), eta orain arte hori ez da kontuan hartu, ez plangintza-prozesu eta -tresnetan, ez hiri-berroneratzean. Gai honen inguruan egin diren azterlan ugariak agerian utzi dute emakumeen errealitateari arretarik ez jartzeak genero-desberdintasunak erreproduzitu dituela hiri-garapeneko prozesuetan; izan ere, arreta falta horren ondorioz, emakumeen errealitateari eta hartatik eratortzen diren beharrian espezifikoak entzungor egin zaie espazio publikoetan, zuzkiduretan, etxebizitza-erakinetan eta abarretan. Beharrian horietako asko emakumeek zaintza-lanean duten rola ondoz dira (etxea, familia, gaixo dauden senideak zaintzea, etab.); izan ere, nahiz eta gizonak pixkanaka egiteko horien zati handiagoa ari diren hartzen beren gain, oraindik ere emakumeak arduratzen dira zaintza-lanen edo lan erreproduktiboaren zatirik handienaz. Horren ondorioz, emakume askok, etxetik kanpo ere egiten dutenez lan (jarduera profesionala), lan-karga bikoitza izaten dute. Politikaren arlo guztietan (hirigintza barne) sustatu behar da zaintza-lanetan gizonen eta emakumeen arteko banaketa bidezkoa, baina, era berean, udalerriek oso kontuan izan behar dute zaintzaileen errealitatea –eta zaintzaile gehienak emakumeak dira–; hori horrela, haien egunerokotasuna errazteko eta bizi-kalitatea hobetzeko helburuz pentsatu eta diseinatu behar dituzte politikak.

Generoari buruzko azterlanek erakusten dutenaren arabera, bada udalerri berdinezaleak lortzeko funtsezkoa den beste alderdi bat ere: kontuan hartzea emakumeek nola hautematen duten segurtasuna espazio publikoan, emakumeen eta gizonen



pertzepzioa zeharo ezberdinak baitira horri dagokionez. Hiria hobetzeko prozesuei kontu hori ere kontuan hartuta ekin behar zaie, emakumeek espazio publikoaren erabileran euren burua ez dutela mugatzen eta espazio horretan euren presentzia bermatuta dagoela ziurtatzeko.

Esparru sinbolikoan ere bermatu behar da emakumeen presentzia; horretarako, baldintza egokiak sortu behar dira, emakumeek aukera izan dezaten parte-hartze prozesuetara iristeko eta horietan nahasteko, komunitateetan lidergoa euren gain hartzeko, politikan parte hartzeko, etab.

Errealitateak erakusten duenez, hiriak eraldatzeko prozesuetan genero-ikuspegia txertatzen denean, hobetu egiten da emakumeen eta gizonen bizi-kalitatea, zaintzen duten pertsonena eta, oro har, gizarte osoarena.

ETXEBIZITZA

ALDERDI GARRANTZITSUAK

Jarraian, **ETXEBIZITZAREN DISEINUAN** genero-ikuspegia txertatzeko kontuan hartu beharreko zenbait alderdi jasotzen dira.⁵

*Errealitatea genero ikuspegia integratuz behatzeak errealitate horren **aniztasuna** ikusaraztea eta aintzat hartzea eskatzen du. Azterketa hori, gainera, ikuspegi intersektionaletik egiten bada –generoan beste desberdintasun-ardatz batzuk sartuta–, ariketa konplexu bihurtzen da, eta etxebizitza-proiektuetan ere txertatu beharko litzateke.

Alde batetik, pertsona guztientzat diseinatzeak esan nahi du gizartearen, bizikidetza-unitateen eta bizitegi-espazioetan biziko direnen bizi-errealitateen aniztasuna aitortzea. Eta, bestetik, pertsonen bizi-zikloak kontuan hartuta diseinatzeak esan nahi du premia pertsonalak eta kolektiboak, askotarikoak izateaz gain, dinamikoak ere badirela onartzea. Kontua da “bizitza guztietarako” eta “bizitza osorako” proiektatutako inguruneak bermatzea.

* Bizitoki-inguruneen **segurtasunak, babesak eta irisgarritasunak** pertsonen **autonomia** baldintzatzen dute, eta, beraz, bizi-kalitatea. Autonomia pertsonala oinarritzko baldintza da, eta interdependenziarekin eta zainketekin batera formulatu behar da; horrela, autonomia handiagoa izateak zaintza-lan gutxiago eragingo ditu.

Segurtasuna “benetakoa” zein “hautemandakoa” da, eta espazio publiko eta partekatuetan gizonen eta emakumeen arteko desberdintasun handienak sortzen dituen ardatzetako bat da.

Autonomia pertsonala beharrezko **segurtasunaren, babesaren eta irisgarritasunaren** bidez ulertzen da. Hiru ardatz horiek elkarren artean lotuta daude, eta inguruneen zein horiekin elkarrengatzen duten pertsonen mende daude.

* Emakumeak gero eta gehiago sartu dira lan-merkatuan, baina gizonak ez dira horrenbeste sartu lan erreproduktiboan. Ekonomikoki eta sozialki gutxietsitako lana da, eta oraindik ere emakumeek egiten dute, batez ere. Etxeko lanak eta zaintza-

⁵ Informazio hori sailaren barruan eta, zehazki, Etxebizitza, Lurzoru eta Arkitektura Zuzendaritzan egiten ari den gogoeta- eta lan-prozesutik jaso da.



lanak barne hartzen ditu, eta, batez ere, etxebizitzan eta bizitegi-ingurunean egiten da; beraz, horien konfigurazioak eta ekipamenduak oso baldintzatuta dago.

Etxebizitza eta bere ingurunea lan erreproduktiboko leku gisa ulertu eta artatzea proposatzen da, euren **balioa aitortuz**, **funtzionaltasuna** bermatuz eta **erantzunkidetasuna** erraztuz.

* Generoa da osasuneko desberdintasun sozialen determinatzaile nagusietako bat, hau da, gizonen eta emakumeen arteko osasun-desberdintasunena, eta desberdintasun horiek bidegabeak, sistematikoak eta saihesteko modukoak dira. Pertsonak jaio, hazi, bizi, lan egin eta zahartzen diren inguruabarrek baldintzatzen dute osasuna, eta etxebizitza pertsonen bizi-baldintzen funtsezko zati bat denez, bizitegi-inguruneak hobetzeak eragin positiboa du biztanleen ongizatean, batez ere beste baliabide batzuk eskuratzeko aukera gutxien dutenen ongizatean.

Ondoezetik babesteko irizpideak lantzea proposatzen da, eta, bestetik, **ongizatea hiru dimentsiotan sustatzeko**: fisikoa, mentala eta soziala.

*Etxetik lan egiteak enplegu-aukerak areagotu ditzake, pertsona askorentzat etxebizitza bera ekoizpen-espazio eskuragarriena delako.

Gainera, azken aldian, ekonomiaren tertziarizazioak eta Internetarako sarbidea orokortzeak telelanaren ezarpena bizkortu dute. Horrek guztiak lagunduko luke lanaren eta gainerako esparruen (pertsonala, familiakoa, soziala) arteko harremana optimizatzen, baina ez da ahaztu behar emakumeek gizonen baino arrisku handiagoa dutela familia eta lana bateragarriak egiteari eta erantzunkidetasunari eragiten dieten arriskuen aurrean. Bizitegi-ingurunean bertan **ekoizpen-azpiegitura egokiak emateko** irizpideak proposatzen dira, bai xede horretara berariaz bideratutako espazio gisa, bai gelen moldagarritasunaren bidez.

ETXEBIZITZA ESKURATZEKO BIDEA

Etxebide Zerbitzuak 2020ko 4. hiruhilekoan emandako datuen arabera, 76.640 eskaeretatik 33.052k emakume titularra dute, 27.236k gizona eta 16.352k biak. Halaber, aitortutako genero-indarkeria duten 1.099 eskaera zenbatu dira.

2020ko 4. hiruhilekoko datuekin, 41 baja zenbatu dira Etxebiden, genero-indarkeriako espediente aitortua duten emakumeei etxebizitza esleitu zaielako. Halaber, esan dezakegu 2020. urtearen amaieran 4.990 kontratu onetsi direla: 1.587 kontratuan titularra gizona da, 1.892ko titularra emakumea da, eta gainerako 1.511etan ez dago daturik.

Gaztelagun programaren eskatzaileei dagokienez: 2020. urtearen amaierara arte, laguntzak eskatu zituzten 3.666 espedienteetan, 2.358 eskatzaile emakumeak ziren.

Data horretan bertan, euskal emakume gazteak izan dira laguntza horien onuradun nagusiak. 1.998 pertsona onuradunetatik, % 64,1 (1.281) emakumeak izan dira, eta % 35,9 (717) gizonak.

Etxebizitzaren Euskal Behatokiak txosten xehatu bat egiten du urtero, eta, bertan, emakumeek Euskadin etxebizitzari dagokienez duten egoeraren diagnostikoa eta bilakaera islatzen ditu:

Emakumeek oraindik ere lan-karga handiagoa hartzen dute euren gain etxean eta mendeko pertsonen zaintzan, eta horren ondorioz, euren jarduera-tasa nabarmen txikiagoa da, lanaldi partzialeko lanaren intzidentzia nabarmen handiagoa da eta lan-baldintza okerragoak dituzte, eta oraindik dagoen soldata-etena nabarmen da.

COVID-19aren krisiaren inpaktuari buruz eskura dauden lehen datuek agerian uzten dute emakumeen jarduera-tasa zertxobait jaitsi dela (% 51,1 2020an), eta langabezia pixka bat igo dela (% 10,7). Aitzitik, langabezia-tasa nabarmen igo da gizonen artean



(% 10,3).

Testuinguru horretan, Etxebizitza Beharrei eta Eskaerari buruzko Inkestak nabarmentzen du lehen etxebizitza eskuratzeko eskaera osatzen duten emakumeen ahultasun ekonomiko berezia. 2017an, lehen etxebizitza eskuratzeko beharra adierazten zuten 31.777 emakumeen herenak soilik adierazi zuen etxebizitza hori eskuratzeko behar adina diru-sarrera zituela.

Modu koherentean, Etxebiden izena emandako emakumeen kopurua pixka bat handitu da 2020an. Data horietan, 76.640 pertsonak eman zuten izena Etxebiden, eta horietatik 33.052 emakumeak ziren.

Era berean, Etxebidek eskaintzen duen etxebizitza-eskariaren ikuspegi horrek berresten du emakumeek egoera ekonomiko txarragoa dutela etxebizitza eskuratzeko, baita etxebizitza babestuen kasuan ere. Inskribatuta dauden emakumeen kolektiboaren ahultasun ekonomiko oso nabarmena da, eta gizonena baino handiagoa. Emakume horien ia erdiek ez dute aitortutako diru-sarrerarik edo diru-sarrera horiek ez dituzte 9.000 euroak gainditzen urtean, eta % 6,5ek soilik gainditzen dituzte urteko 25.000 euroak.

2020an, titularra emakumea duten etxebizitza babestuko 1892 kontraturen bisak erregistratu dira.

Etxebizitzarako eskubide subjektiboaren aitortpenak bereziki aurrera egiten jarraitu du 2020an: 3.800 emakumeri eman die babesa, onuradunen % 61,9ri; horietatik 588 emakumek etxebizitzarako prestazio ekonomikoa jasotzen dute, eta 667 emakumek babes publikoko etxebizitza bat jaso zuten.

Azkenik, genero-indarkeriaren biktimekin egindako jardueri dagokienez, sailean jasotako datuen arabera (2021eko datuak), alokairuko 53 esleipen zuzen egin dira, eta 7 emakumek eskuratu dituzte alokairu libreko laguntzak.

GARRAIOA ETA MUGIKORTASUNA⁶

ALDERDI GARRANTZITSUAK

Mugikortasunaren azterketan genero-ikuspegia txertatzeko, nahitaez aztertu behar da genero-erolek zer-nolako eragina duten gure hiri eta herrien erabileran eta gozamenean; eta nola generoak eta hura beste ezaugarri batzuekin elkartzeak –adina, jatorria, diru-sarreraren maila, gaitasunak, bizikidetza-unitate mota, bizi den habitata edo herria– pertsonen mugikortasun-aukerak baldintzatzen eta zehazten dituen.

Garraio- eta mugikortasun-sistemak behar bezala planifikatzea ezinbestekoa da emakumeei bermatzea gizonen aukera berdinak baliatuko dituztela gizartean eskura dituen harreman, ondasun eta zerbitzuetan.

Bestalde, garraioaren sektorean emakumeen presentzia urria da, hasiera batean, sektoreari lotutako goi-mailako hezkuntzako adarretarako sarbide txikiagoa delako, ustez maskulinoak diren eskumenei lotutako ustezko ezaugarrien inguruan estereotipatutako gizarte-eraikuntza batzuk daudelako eta norberaren bizitza, lana eta familia bateratzen gutxi laguntzen duten lan-baldintzak daudelako. Sektorean presentzia txikiagoa izateak, aldi berean, esan nahi du sektoreko enpresa publiko edo enpresa-erakunde nagusietako zuzendaritza-organoetan ere emakumeen parte-hartzea nabarmen txikia dela.

Emakumeak, garraioaren erabiltzaile gisa.

Emakumeen eta gizonen mugikortasun-ereduak desberdinak dira, sexu bakoitza lekualdatzeko arrazoiak desberdinak direlako, eta horrek, aldi berean, mugitzeko aukeraturako moduak baldintzatzen ditu. Aisialdi, kudeaketa pertsonal edo ikasketekin loturiko joan-etorriak bi sexuotan antzeko proportzioan ematen badira ere, laneko arrazoiengatik gertatzen diren joan-etorriak gutxiago aipatzen dituzte emakumeek gizonek baino (% 26,0 eta % 34,6, hurrenez hurren). Bestalde, hirugarren pertsonen zaintza eta arretarako, eta etxebizitzako lanen erantzukizun nagusia emakumeei egozten zaienez, emakume gehiagok egiten dute joan-etorria norbait laguntzeko (emakumeen % 11,1ek eta gizonen % 6,4k) eta etxeko erosketak egiteko (emakumeen % 11,6k eta gizonen % 5,5ek).

Emakumeen mugitzeko beharraren arrazoiak gizonenak baino gehiago izanik, emakumeen mugikortasuna gizonena ez bezalakoa da joan-etorrietan erabilitako garraio-moduetan. Emakumeek maizago erabiltzen dute garraio publikoa (erabilpen-tasa: emakumeena % 15,4 da eta % 8,2, gizonena). Datu horiek erakusten dute garraiobide jakin batzuen erabilera, hiri-autobusarena kasu, gehienbat emakumezkoena dela (emakumeen % 69 eta gizonen % 31).ⁱ

Emakume askok mugatuta dute ibilgailu pribatua izateko aukera, arrazoi ekonomikoak medio edo praktikotasun arrazoiengatik. Hiriko hainbat puntu lotu behar dira, horietako asko elkarrengandik hurbil, aparkatzeko zailtasunarekin, auto-ilarekin eta abarrekin. Hori da, hain zuzen ere, emakumeek, distantzia laburretan, auzoan adibidez, oinez joan-etorri gehiago egiteko arrazoi

⁶ «Generoaren araberako eraginaren ebaluazioa garraioan eta mugikortasunean» gidatik ateratako datuak. Emakunde, 2021.



nagusietako bat; aldiz, gizonen gehiengoak autoa erabiltzea aukeratzen du joan-etorriak egiteko.

MPI (Mugikortasun Pertsonaleko Ibilgailuak) ibilgailuen bidezko mugikortasun-zerbitzuak eskaintzen dituzten hirietan, erabilera hedatuago dago gizonen artean emakumeen artean baino (% 61 eta % 39, hurrenez hurren). Nolanahi ere, belaunaldien arteko etena antzematen da hirietan gero eta presentzia handiagoa duten hiri-mugikortasun modu berrien erabilerei dagokionez.

Hala ere, emakume guztiek ez dute joan-etorriak egiteko eta garraio publikoa erabiltzeko modu bera. Emakumeek gizonen baino aldakortasun handiagoa erakusten dute errenta-mailari, erantzukizunei, adin edo lan-egoerari dagokionez. Hain zuzen ere, emakume gazteenek eta emakume zaharrenek erabiltzen dituzte gehien motorrik gabeko bitartekoak; aldiz, autoaren erabilera indibidualaz ari garenean (bai gidari gisa, bai bidaiari gisa), bai motozikletez ari garenean, 20 eta 64 urte bitartekoen artean dago zabalduen erabilera hori. Adin-tarte horietan ere, aldeak nabarmenagoak dira gizonekiko, % 18koa eta % 22koa baitira, hurrenez hurren. Datu horiekin berretsita geratzen da desberdintasunak daudela emakumeen eta gizonen artean ibilgailu pribatuaren erabileran.

Emakumeek, bide-segurtasunari dagokionez, kontu handiagoz gidatzen dituzte ibilgailu pribatuak, eta gidatzean arrisku-pertzepzio handiagoa izaten dute gizonen baino. Horrenbestez, emakumeek ustez zuhurtzia handiagoz gidatzeak, eta, gizonen aldera, gidatze-arriskuen pertzepzioa handiagoa izateak, eragina du haien istripu-probabilitate txikiagoan, 2020ko EAEko Trafiko Istripuen Urtekari Estatistikoaren datuek diotenez trafiko-istripuetan ukitutako pertsonen kopurua emanez.

Emakumeak garraioaren ekoizpen-sektorean:

Emakume gutxi dago, batez ere sektoreko eremu jakin batzuetan. EAEko 2019ko garraio-industriaren azterketa baten arabera⁷, garraioaren sektorean lan egiten duten pertsonen artean (mugikortasun- eta logistika-sektoreko jarduerak kontuan hartu gabe) % 80,9 gizonak dira eta gainerako % 19,1 emakumeak.

Sektore horrekin lotutako beste industria batzuen kasuan ere, hala nola garraiorako materialaren fabrikazioan edo azpiegiturak altxatzeko eraikuntzan (errepideak, tunelak, trenbidea, etab.) esaterako, emakumezko gutxi aurki ditzakegu.

Automozioaren sektoreari dagokionez, estatuan egindako azterlanek emandako datuen arabera, itxuraz hain maskulinizatuta ez dagoen sektorea da.

Hala ere, nabarmendu behar da, mugimendu asoziatiboek diotenaren arabera, emakume batzuk badirela "itzalpean", adibidez, errepide bidezko garraioaren sektoreari lotutako lanetan, beren bikotekide edo senideei, kamioilariari kudeaketa lanak egiten. Oso ohikoa da azpi-sektore horretan emakume asko aurkitzea; nahiz eta beren bikotekideen enplegu autonomoaren kudeaketa osoaz arduratu, ez dira enplegu-zifretan agertzen.

Euskadiko garraioaren panoramika Euskadin, 2019. Euskadiko Garraioaren Behatokia «OTEUS».

DESBERDINTASUNAK BALIABIDEAK ESKURATZEARI DAGOKIONEZ.

Emakumeek garraio-sistema merke eta irisgarriarako ez ezik, batik bat seguruarako irispidearena da emakumezkoen premia nagusietako bat, hiri-mugikortasunari dagokionez, 2030 Agendako 11. helburuan (Hiri eta Komunitate Jasangarriei buruzkoan) jasota dagoen bezala.

Emakumeen hiri-mugikortasuna ohiko ibilbideetan sentitzen duten segurtasun-pertzepzioaren mende egon ohi da askotan.

EUSTATEk eskaintako datuen arabera, honako baliabide hauek lortzeak emakumeen garraio eta mugikortasunean dituen ondorioak zehazten dira:

***Ekonomikoak:** Emakumeek erosteko ahalmen txikiagoa dute, eta horrek mugatu egin ditzake, adibidez, ibilgailu pribatua eskuratzeko eta garraio garestiagoak erabiltzeko (abiadura lasterreko trenak, hegazkinak), baina gainerako garraio kolektiboekin ere gauza bera gertatzen da, ahalegin ekonomiko handiagoa egin behar baitute dagokien prezioa ordaintzeko.

***Denbora:** Denboraren erabilerari buruzko EUSTATEN 2018ko inkestaren arabera, denboraren banaketak erakusten du emakumeek denbora gehiago ematen dutela haurrak zaintzen eta hurrekin jolasten eta eurak hezten, eta, gainera, emakumeek denbora gehiago ematen dutela etxearekin lotutako zeregin gehienetan. Guztira, 3:06 ordu darabilte etxeko lanetan, eta gizonek, aldiz, 1:55. Enplegua duten emakumeen eta gizonen dedikazioa jarduera horietan alderatzen denean ere, oraindik ere ikusten da askoz handiagoa dela emakumeen kasuan.

- Emakumeek, oro har, euren gain hartzen duten lan-karga bikoitza. Egunerokotasunean lan produktiboa eta ugalketakoa bateragarri egiteko lan horiek guztiak betetzeko, funtsezkoa da beharizan horiei erantzuna emango dien mugikortasun-sistema eskuragarri izatea.
- Gaur egun garraio publikoaren ordutegi eta ibilbideen antolaketa gizonen mugikortasun-ereduei erantzuteko diseinaturik daude, horiek denbora gehiago eskaintzen baitiote lanari edo prestakuntzari eta aisialdiari (pasiboa eta aktiboa) eta kirolei.
- Emakumeek puntako orduetan edo joan-etorri gehien egiten dituzten orduetan oinarritutako plangintzan oinarritzen ez diren zerbitzuak eskatzen dituzte
- Hainbat eginbehar egun bakar batean garraio publikoa erabiliz edo oinezko joan-etorrien bitartez lotzeko behar horrek emakumeei denbora luzeagoa kontsumitzea eragiten die eta, beraz, beste jarduera batzuen kalterako dira, hala nola, emakumeen jarduera profesional, prestakuntzakoak edo aisialdirako.

***Prestakuntza:** Gizonek, emakumeekin alderatuta, garraioaren sektorearen barneko lanbide-adar zabalarekin lotutako prestakuntza akademikoa gehiagotan hautatzen dute.

Lanbide-heziketaren (LH) alorrean, ia ez dago emakumerik garraioarekin lotutako gradu batzuetan.

Unibertsitateko ikasketei dagokienez, emakumeen matrikulazio-tasa LHrekin alderatuta handiagoa bada ere, ez dira zifra orekatuak, teknikoagoak diren gradu edo karreraren kasuan batez ere (ingeniaritza informatikoa, elektronika, telekomunikazioak,



etab.).

*Enplegua: Garraio eta mugikortasunarekin lotutako diziplinetan prestatutako gizonak gehiengoa izateak lanbide hori maskulinizatuago egotea du ondorio eta, beraz, emakumeen presentzia urria da sektore horretan.

Lanpostu asko eskuratzeko aukera oso zaila da oraindik emakume askorentzat, gizartearen estereotipoen gidari, zirkulazioko langile edo mekanika-lanekin lotutako lanpostuak gizonen trebetasun edo gaitasunekin lotzen baitira.

Garraioarekin lotutako lanpostu asko, dirudienez, ez dira bateragarriak bizitza pertsonal, laboral eta familiarrekin.

*Gaikuntza digitala: bermatu behar da sarbide digitala ez dela bazterketa-elementu bat emakume talde batzuentzat, bereziki zaharrentzat edo teknologiarako sarbidea izan arren hura erabiltzeko behar diren gaitasunak ez dituztenentzat.

EMAKUMEEN ETA GIZONEN PARTAIDETZA.

Sektoreko enpresen zuzendaritza-postuetan eta garraio publikoko erakunde arduradunetan emakumeen presentzia hazten joan bada ere, garraioaren ekoizpen-sektorean duten presentzia nabarmen baxuagoa da, baita ere gizonek izan ohi dituzten hainbat kargu edo zuzendaritza-postuetan duten ordezkartza ere.

3.2. HELBURU ESTRATEGIKOAK

BERDINTASUNAREN ARLOAN ESKU HARTZEA																					
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILAREN HELBURU ESTRATEGIKOAK.				Arduraduna	Kronograma			GOBERNU-PROGRAMARE KIKO KORRESPONDENTZIA ⁹		VII. PLANAREKIKO KORRESPONDENTZIA											
										GOBERNU ONA					1. ARDATZA	2. ARDATZA			3. ARDATZA		
					2022	2023	2024	1.	2.	3.	4.	P.1	P.2	P.3	P.4	P.5	P.1	P.2	P.3	P.4	P.5
SUNEZKO HELBURU	1. BERDINTASUN-POLITIKAK GARATZEKO AURREKONTUA HANDITZEA.				ZUZENDARITZA GUZTIAK					13			☒	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐
	2. BERDINTASUNERAKO ADMINISTRAZIO-UNITATEAK SENDOTZEA.				ZERBITZU ZUZENDARITZA					13			☒	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐	☐

[illegible]

[illegible]

[illegible]

4 PLANAREN KUDEAKETA SISTEMA

Jarraian, sailaren Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako Plana modu koordinatuan eta gardenean ezartzea bermatuko duen kudeaketa-eredua aurkezten dugu; eredu horrek, aldi berean, Sailaren barruan eskuratutako aurrerapenak eta lorpenak ebaluatzeko aukera emango du, baita gizartean eta herritarrekin izan dituenak ere, emaitza horiek gizarteratze aldera.

Sailaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planak ezartzen du berdintasunaren arloan zer esku-hartze ildo hartu behar dituzten kontuan XI. Legegintzaldian sailari atxikitako zuzendaritzek eta erakundeek. Urte anitzeko dokumentu honetan helburu generiko eta estrategikoak aurreikusten dira, eta horiek orientatuko dituzte urteko plangintzan ondoren jasoko diren jarduerak, izaera operatibo eta zehatzagoarekin.

4.1. BERDINTASUNERAKO URTEKO PLANGINTZA

Sailaren urteko planaren garapenean, berdintasun-politikak ezartzeko **plangintza barne hartuko duen plan bat** prestatuko da bi urtez behin, eta hura bera ebaluatuko da ondoren. Plan horretan, honako hauek xedatuko dira:

- Helburu estrategikoak
- Helburuak garatzeko ekintza zehatzak
- Arduraduna
- Kronograma
- Aurrekontua.

Gainera, urteko plangintzaren osagarri modura, urteko planari buruzko informazio laburtua jasotzeko aukera ematen da, sailarteko eta sailen barruko koordinazio-egiturei haren berri eman ahal izateko.

Bestalde, Visesa, Alokabide, Euskotren eta Euskal Trenbide Sarea-ETS erakundeek beren urteko plangintzak egingo dituzte, sailaren lehentasunezko helburuekin bat etorritik.

4.2. BERDINTASUNERAKO EGITURAK

Jarraian, Sailak berdintasun-politiken alorrean zer oinarritzko egituratan parte hartzen duen azalduko da modu eskematikoan, planaren esparruan betiere:

BULTZATZEKO EGITURAK

EMAKUNDE da EAEn berdintasun-politikak sustatzeaz, aholkularitza emateaz, plangintza egiteaz eta ebaluatzeaz arduratzen den erakundea.

SAILAREN BERDINTASUNERAKO ADMINISTRAZIO-UNITATEA plana egikaritzeaz, haren segimendua egiteaz eta ebaluatzeaz arduratuko da, eta saileko organoei eta langileei aholkularitza eskainiko die

ERAKUNDEARTEKO KOORDINAZIO-EGITURAK

ETXKO TRATU TXARRAK ETA SEXU-INDARKERIA JASATEN DITUZTEN EMAKUMEEI HARRERA HOBEA EMATEKO ERAKUNDEARTEKO AKORDIOAREN JARRAIKEN-BATZORDEA. Bertan parte hartzen duten pertsonak Erakundearteko **Talde Tekniko** bat daukate sostengu tekniko modura.

SAILARTEKO KOORDINAZIO-EGITURAK

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO ERAKUNDEARTEKO BATZORDEA Eusko Jaurlaritzaren berdintasun-jarduerak koordinatzeko organoa da eta berdintasunaren arloan aditua den **Sailarteko talde teknikoaren** babesa du.

SAILARTEKO KOORDINAZIO-EGITURAK

SAILETAKO TALDE TEKNIKOAK

Berdintasuneko unitateek eurek gidatuta eta koordinatuta, haien helburua berdintasun-politikak modu efektiboan aplikatzen laguntzea da sailari atxikitako edo lotutako zuzendaritzetan, erakunde autonomoetan eta sozietate publikoetan; horretarako, informazioa eta laguntza jasoko dute berdintasun-politikak garatzeko prozesuaren fase bakoitzean.

4.3. JARRAIPEN-SISTEMA

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saileko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planaren jarraipen-sistema oinarritzko tresna izango da; haren bidez, sailak XII. legegintzaldian egindako berdintasun-politikaren jardunak, lorpenak eta inpaktuak hausnartu ahal izango dira. Alde horretatik, emaitza positiboak izan dituzten jardunbideak eta kudeaketa-ereduak zein diren adieraziko du, baita hobetzeko beharra dutenak ere; aldi berean, hasieran aurreikusi gabeko jarduerak baina ezarpen-prozesuak aurrera egin ahala egokitzen jotakoak zein diren ere identifikatuko du. Azkenik, erabaki politikoak eta teknikoak hartzen laguntzeko, berdintasuna sailaren erakunde-kulturan, jardunean eta esku-hartzean biltzen dela bermatzeko.

Sailak onartutako konpromisoei **3 jarraipen mota** egitea dago aurreikusita:

- Lehenik eta behin, sailak eta haren organismo publikoek **urtero informazioa xehatua emango diote Emakunderi**, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Plana ebaluatzeko, erakunde publiko guztietarako apropos diseinatutako jarraipen mekanizatua eta telematikoa egiteko sistemaren bidez: [*Berdintasunerako Planaren ebaluazioa eta segimendua egiteko aplikazioa.*](#)

Jarraipen horren emaitza urtero islatuko da **agintari publikoen jardunari buruzko memoria** batean, Emakundek argitaratzeko duen berdintasun-plana betearazteko. Txosten horiek emandako informazioa biltzen dute, eta EAEko administrazio publiko guztiaren jardueren analisi kuantitatiboa eta kualitatiboa biltzen dute: [*Politika publikoen ebaluazioa*](#)

Horrez gain, EAEko administrazioek egindako jarduerekin lotutako informazioa biltzeko eta zabaltzeko beste sistema batzuk ere gaitu dira: **Berdintasun-mapa eta jardunbide egokien bankua**:

<http://www.emakunde.euskadi.eus/u72-20021/es/x57aEAIWar/comunJSP/x57ConsultaInOP.do?accion=idioma&lang=es>

<http://www.emakunde.euskadi.eus/u72-20021/es/x56aBbpiWar/x56aJSP/x56aCambioldioma.do?idioma=es>

- Bigarrenik, sailak legegintzaldiko bi unetan informatu beharko du, Emakundek koordinatzen duen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sailarteko Batzordearen bitartez: eskumenen babesean identifikatu diren **legegintzaldiko lehen tasunaren ezarpenaren betetze-mailaren tarteko eta amaierako jarraipena**, horretarako diseinatutako txantiloien bidez.
- Hirugarrenik, Sailak berak informazioa jasotzeko metodo soila eta arina aurreikusi du; haren bidez, **urteko dokumentu labur batean** sailaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planaren betetze-maila

islatuko da. Esandako dokumentu horren bidez, Emakumeen eta Gizonen Sailarteko Batzordean urteko planaren egikaritze-maila adieraziko dute.

- Azkenik, sailak **«EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VII. Planaren adierazle estrategikoen sistemaren jarraipenean» lagunduko du:** VII. Planaren ebaluazioak berdintasun-politiken epe ertain-luzerako ondorioen ebaluazio bat egitea begiesten du, Genero Berdintasunerako Indizetik abiatuta, sintesirako adierazle-sistema estrategiko baten bitartez. Sailak, bere eskumenen arabera eta zerikusia duten gainerako erakunde publikoekin batera, laguntza emango du adierazle horien jarraipenean eta, batez ere, adierazleen aurrerabidean. Horrek baterako lan koordinatua eskatzen du, berdintasunaren arloan aurrera egiteko Euskadiko bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialean, genero-berdintasunari dagokionez, Europako lehen herrialdeen artean kokatzeko modua izan dezan.

4.4. KOMUNIKAZIO-SISTEMA

Sailaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Planaren beste oinarrietako bat —diseinuaren, kudeaketaren, ezarpenaren eta ebaluazioaren fasean— Saileko langileen inplikazioa lortzea da, dela politikoa, dela teknikoa, sailarteko koordinazio bikain baten bidez. Era berean, garrantzitsua da gizarte-partaidetzarako prozesuak artikulatzea, emakumeen interesak defendatzen dituzten elkarten ehunari arreta berezia eskainita.

Alde horretatik, planak komunikazio ona beharko du **barruan zein kanpoan**, sailak, bere eskumen-esparruan, emakumeen eta gizonen berdintasun-politikak sustatzeko hartzen dituen konpromisoak sozializatzeko. Esandako komunikazio-plan horrek bi une garrantzitsu izango ditu egikaritzean: plana onartzeko faseko komunikazioa eta plana ezartzeko garaiko komunikazioa.



KOMUNIKAZIO PLANA

HELBURU OROKORRA	Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren Berdintasun Planean hartutako konpromisoen berri ematea eta gardentasuna erraztea.
---------------------	--

1. PLANA ONARTZEA

BARNE-MAILAN

Helburu espezifikoa	Sail osoari helburuen, erantzukizunen eta lan-egutegiaren berri ematea maila politikoan eta teknikoan, plana legitimatzeko.
---------------------	---

Ekintzak

Arduraduna

Langile guztiei jakinarazpen bat bidaltzea, Sailaren Berdintasun Plana onartu dela jakinarazteko, eta planaren kopia eranstea.	Zerbitzu Zuzendaritza
Plana Jakina atariaren bidez zabaltzea	Zerbitzu Zuzendaritza
Plana aurkezteko bilera bat egitea Saileko berdintasun-egitura politiko eta/edo teknikoekin	Zerbitzu Zuzendaritza

KANPO-MAILAN

Helburu espezifikoa	Herritarrei jakinaraztea zer neurri ezarri nahi diren berdintasunaren arloan eskumenen esparruan, informazio-eskubidea bermatzeko eta gizartearen jarraipena eta inplikazioa sustatzeko.
---------------------	--

Ekintzak

Arduraduna

Plana Sailaren webgunearen bidez zabaltzea	Zerbitzu Zuzendaritza
--	-----------------------

2. JARRAIPENA ETA EZARPENA

BARNE-MAILAN

Helburu espezifikoa	Plangintzaren betetze-maila ezagutaraztea, lorpen nagusiak nabarmenduz eta zuzendaritzek egindako lanari balioa emanez
---------------------	--

Ekintzak

Arduraduna

Saileko berdintasun-egitura politiko eta/edo teknikoekin urtero bilera bat egitea, betetze-mailari buruzko memoria aurkezteko urtearen amaieran.	Zerbitzu Zuzendaritza
Saila osatzen duten pertsona guztiei sarbidea eta parte-hartzea bermatuko dieten komunikazio-bideak ezartzea (iradokizunen postontzia)	Zerbitzu Zuzendaritza

KANPO-MAILAN

Helburu espezifikoa	Plangintzaren betetze-maila ezagutaraztea, lorpen nagusiak nabarmenduz.
---------------------	---

Ekintzak

Arduraduna

Sailak berdintasunaren arloan egindako jardunbide egokien berri ematea aldizka.	Zerbitzu Zuzendaritza
---	-----------------------



4.5. AURREKONTU-SISTEMA

Gogoratu behar da ezinbestekoa dela beharrezkoak diren bitartekoak edukitzea, plan hau ezarriko bada.

Alde horretatik, **Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzetarako martxoaren 18ko 4/2005 Legeak** hauxe dio **14. artikuluan**: «Autonomia-, foru- eta toki-administrazioek, **urtero, lege honetan jasotako eginkizunak betetzeko eta neurriak egikaritzeko behar dituzten ekonomia-baliabideak izendatuko eta zehaztuko dituzte bakoitzaren aurrekontuetan**».

Era berean, arestian aipatutako artikulua 3. paragrafoak honako hau xedatzen du: **“Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio publikoak modu aktiboan eta progresiboan sustatuko du Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren % 1, gutxienez, emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak garatzera bideratzea**».

Horrenbestez, bitarteko horiek modu xeheagoan ipini beharko dira urteko planetan, legegintzaldi-plana haien bidez zehaztuko baita. Nolanahi ere, azpimarratzekoa da honela banatuko dela aurrekontua: batetik, berdintasunerako administrazio-unitate baterako partida espezifiko bat, eta, bestetik, urteko planetan aurreikusitako ekintzak ezartzeko aurrekontu propio bat.